



HERNANI
2023-2024

HERNANI 2023-2024

29. URTEKARIA



Udal Artxibo Zerbitzua

HERNANI 2023-2024



Udal Artxibo Zerbitzua

29. urtekaria

Azala: Hernaniko Udal Artxiboa (HUA / ARGAZKIAK // Laureano Matias Rodríguez)

Diseinu, maketazio eta inprenta:  **antza** KOMUNIKAZIO GRAFIKOA www.antza.eus

Lege gordailua: SS-403-1993

Artikuluetan azaltzen diren iritzien erantzule idazlea bera da.

Las opiniones expresadas en los artículos son responsabilidad exclusiva de sus autores.

HITZAURREA

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
HERNANIKO ALKATEA

'Hernani' urtekariaren irakurle zaren hori, beste ale interesgarri bat jarri dugu zure esku, 29. zenbakia hain zuzen ere. Eta ez zaitzu mamirik faltako, herriaren kontu interesgarriz hornitu baitute aldizkari hau aditu eta kolaboratzaileek.

Iraganak egiten du oraina. Eta Hernani ere bada iraganeko pasarteek zizelkatu duten gure egungo herri hau. Horregatik, II. Gerra Karlistaren inguruko testu bat bildu dugu ale honetara, Hernaniren gaineko setioa gogora ekartzen duena. Eta adierazgarria da, horri dagokionez, urtekariaren azala ere. Keinu egin nahi izan baitio gerra hartan izandako bonbardaketa batek hondatu zuen gure udaletxeko areto nagusiari. Bonbek hondatu eta guk berregin dugu udaleko areto nagusia, iraganeko hernaniarrek eraiki zuten itxurari erreparatuz eta ahalik eta fidelen jarraituz. Haien ondorengoak ere bagarelako.

Baina orainaldiko kontu interesgarri ere topatuko dituzu testuen artean. Hernaniko ibilbide moreen berri izateko aukera izango duzu, eta baita ere gure udal honen politiken ardatzetako bat den Hernani Burujaberen egoera zein den, haren koordinatzaile Mikel Valeroren azalpenen bidez.

Historiak, naturak, kirolak, ondareak... Mila kontu eta askotarikoko gai interesgarri ugari dituzu esku artean. Gonbidatzen zaitut irakurtzera eta gozatzerara.

On egin eta laster arte!

AURKIBIDEA

01. HERNANIKO IBILBIDE MOREA	06
<i>Ixiar Pagoaga Soraluze Maialen Apezetxea Lujanbio</i>	
02. "PROZESU HAUEK ERALDATZAILEAK DIRA; HITZ EGITEKO, ENTZUTEKO ETA BEGIRATZEKO MODUA ALDATZEN ZAIZU"	18
<i>Aitziber Blanco Goikoetxea, elkarriketa prozesutan bidelagun</i>	
<i>Irati Sarasua Arabaolaza</i>	
03. ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK HERNANIN	30
<i>Xabier Iriarte Ansorena</i>	
04. GIPUZKOAKO ARMARRIA	46
<i>Iraganean, orainean eta etorkizunean</i>	
<i>Beñi Agirre Oiartzabal (Hernani Errotzen Memoria Historikoa)</i>	
05. HERNANI BURUJABE	55
<i>Mikel Valero Alzaga (HIRITIK AT Lurraldegintzarako koordinatu berriak)</i>	
06. "HEMEN GAUDELA ETA JARRAITUKO DUGULA ESATEKO MODU BAT IZAN DA OSPAKIZUNA, 75 URTEKO IBILBIDEAK EMAN DIGUN ESPERIENTZIAREKIN"	60
<i>Ainitze Blanco, Hernaniko Gizarte Berrikuntzako zuzendaria</i>	
<i>Libe Murua</i>	
07. HERNANIN ARTOAK ETA ERROTAGINTZAK IZAN ZUTEN ERAGINA	72
<i>Olatz Arca Mendiluze</i>	
08. HERNANIARRAS EN EL HISTÓRICO EQUIPO DE FÚTBOL GURE IZARRA DE ASTIGARRAGA	79
<i>Joxan Ruiz, Martxel Ruiz, Mikel Ruiz y Martín Isasa</i>	
09. PUTZUXAR, ITURBURUA ONDARE BIHURTUA	87
<i>Iñaki Sanz-Azkue Iñaki Arzak (marrazkiak)</i>	
10. Apuntes sobre la II Guerra Carlista, 1872 - 1876: EL "ASEDIO" DE HERNANI - FIESTA DEL DOS DE JUNIO	93
11. HERNANI, crónica 2022 - 2023ko kronika	107


01. HERNANIKO IBILBIDE MOREA

*Ixiar Pagoaga Soraluze
Maialen Apezetxea Lujanbio*

Ezaguna da “Izena duenak izana du” esaera zaharra gure artean. Historian zehar emakumeen izenak aldiz, ezkutatuak egon dira, eta gehienetan izanak ere bai. Honek izugarritzko desoreka sortu du batzuen eta besteen artean. Gure kale eta plaza izenak bizi garen jendarte ereduaren isla dira dudarik gabe, erreferentzia gisa erabiltzen ditugun heinean, herriarentzat garrantzitsuak diren horiek nabarmentzeko erabiltzen baititugu eta sinbolikoki garrantzi handia hartzen dute. Horrez gain, memoriaren gordailu ere badira, hurrengo belaunaldiei transmititu nahi diegunaren adierazle.*

Jakina da, kale izen baten aukeraketaren atzean testuinguru konkretu bat (garai historiko jakin bat balore jakin batzuekin) eta irizpide konkretu batzuk daudela, eta beraz izen hauek ere testuinguru horietan ulertu behar ditugu. Baina horrek ezin du justifikazio izan hainbat pertsonaiaren izenak mantendu eta gorapaitzeko.

Berdintasun Kontseiluan kale izendegiari betaurreko moreen bidez begiratu diogu eta ezinbestekotzat jo dugu bestelako pertsonaia erreferente eta errelato batzuk espazio publikoan euren lekua eta aitortza izan dezaten sustatzea. Hortik sortu da Hernaniko ibilbide more hau, bonbila morea eskutan geltoki bakoitzari merezitako argia eta lekua ematen saiatu gara. Ekin diezaiogun bideari!





Ibilbide honen lehen geltokia **ANDRE KALEA** dugu, herriko kaxkoan bertan kokatua. Ahozko transmisioari esker jakin genuen, lehenago Urumea eta ondoren Kardaberaz izenez ezaguna zen kale hau, hernaniar askorentzat Andrekale gisa zela ezaguna. Hainbat urtez izen hau berrreskuratzeko lanean aritu ondoren, 2014an onartu zen ofizialki Andre kalea. Berrreskurapen honen bidez andreen historia ezagutu eta azaleratu nahi izan genuen, historia ofizialetik nahiz espazio publikotik desagerraraziak izan diren emakumeen omenez. Ilido honi jarraiki, kondaira bat ere sortu genuen "Andrekale" dokumentalean; grabaketan 200 emakumetik gora elkartu ginen karta jokoan, kantuan eta berriketan, kalea betez.



AZAROAK 25 PLAZA emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokan leku esanguratsua da; izan ere, plaza honetan bertan erahil zuten herrikide genuen Txaro Roman de la Fuente 2011.urtean. Bere omenez mugimendu feministak eserleku bat morez margotu zuen. Indarkeria matxistarik gabeko bizitzaren aldarri izan nahi du plaza honek.



Ibilbide honetako beste geltoki hunkigarri bat **AIMAR ELOSEGI ANSA "MOIO" KALEA** dugu. 2007An bere buruaz beste egin zuen gazte transa zen Moio. Bere heriotzak gauza asko erakutsi zizkigun herri bezala, eta ordu arte ezkutuan zeuden hainbat kontzeptu mahaigaineratu, ikusten ikasten hasi baikinen. Pertsona askeak izateko bidean, urratsa eta geltokia izan nahi du kale honek; trans pertsonak ikusgarri eginez eta Aimarrek ereindako bide eta borrokari merezitako aitortza eginez.



Aimar Elozegi Ansa "Moio" kalearen inaugurazioa, 2022ko maiatzaren 14an izan zen.



JOXEPA ZUBELDIA ELIZEGI KIOSKOA. Joxepa 1867 an jaio tako bertsolaria dugu, nahiz eta orain gutxi arte ia ezezaguna izan. Bertsoez gain, poesia eta errezuak ere idazten zituen. Joxeparen bertso sorta bakarra iritsi da gugana, 1918ko Baztangaren matxinadaren ingurukoa, (Ezkiagan bertan mahai gainera igota kantatu zituenak) bere alabek Joxepa hil ondoren, idatzi guztiak erre baitzituzten, amaz lotsatuta. 2023an eraberritu genuen kioskoa orain duen itxura hartuz. Kioskoaren atzekaldean Joxeparen bertso haietan oinarrituta Maialen Lujanbiok moldatutako bertsoak irakur daitezke.



Joxepa kioskoaren inaugurazioa, 2023ko ekainaren 18an izan zen.



LEOKA GARBITOKIA ezaguna da herrian, antzinako lanbide baten lekuko. Bertan elkartu ohi ziren emakumeak erropak garbitzeko, horietako asko neskameak. Baina garbitoki hau, bazen ere andreak elkartzeko, sozializatze eta politika egiteko gune bat. Geltoki honek garbitzaileen lan gogor eta inbisibilizatua omentzeko parada izan nahi du.



Leokako labaderoa. Hernaniko ibilbide morea 2023ko martxoaren 26an aurkeztu zen jendaurrean.



Maiz, ez dugu historia bere osotasunean ezagutzen, eta ikuspegi partzial horrekin sortzen dugu gure errealitatea. Horixe da ondorengo kasua. Ibarrolaburu bezala ezagutu dugun Portu auzoko plaza honen jatorria deskubritu nahian udal artxiboan arakatzan, jakin genuen Alberto Ibarrolaburu hil zenean bere emazte Mari Cruz Lorenzak Udalarari diru ekarpen bat egin ziola langileentzako etxebizitza merkeak egiteko. Udalak eskertzan, plazarai Ibarrolaburu izena eman zion, Lorenza alde batera utzita. Bidezkoagoa da plazan bien izena izatea, biek ere izango baitzuten partea dohaitza honetan, hortaz **IBARROLABURU-LORENZA PLAZA** bezala berrizendatu da plaza hau.



INDUSTRIAKO EMAKUME LANGILEEN PASEALEKUAK,

Urumea ibaia eta poligono industrialen artean kokatuak, industrializazio garaian emakumeek izan zuten paper garrantzitsua gogorazi eta gorapaitu nahi du. Emakumeak batez ere joskintza tailerretan eta paper fabriketan aritu ziren lanean, beti ere, soldata baxuagoak jasoaz eta lan baldintza kaskarretan, sexuan oinarritutako lan banaketa argia baitzen. Frankismo amaieran batez ere hasi ziren andre langileak antolatzen eta borrokatzen, langileen arteko batasuna eta elkartasuna bidelagun. Ezin aipatu gabe utzi 1967an Zikuñagako papelerako emakume langileen greba entzutetsua.



CARMEN ADARRAGA PARKEA atletismo ondoan kokatua dago. 1921 urtean jaio zen Carmen "Adarragatar kirolariak" ezizenez ezagunak ziren familian. Talde kirola zuen gus-tuen Carmenek, herriko lehen saskibaloit taldea berak sortu zuen, gizona zena oraindik ez zegoenean. Eskubaloit eta hockeyan ere aritu zen. Garai hartan baina, andreek kirola egitea ez zegoen oso ondo ikusia; hala ere, Carmenek eutsi zion bere kirolzaletasun horri. Bere ibilbidea omentzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak "Carmen Adarraga" saria ematen du urtero emakumezko kirolariak omenduz. Parkeari Carmenen izena emanda, herrian merezitako aitortza egin nahi izan zaio, emakume kirolarien ikusgarritasuna helburu.




KULTURARTEKO PLAZA FEMINISTAK 2021eko irailean ireki zituen bere ateak, feminismoaren alde eta arrazakeriaren aurka lan egiteko erreferentziako espazio gisa. Hernaniko emakumeek aspaldi egindako aldarrikapena zen Emakumeen Etxearena, eta askotariko prozesu eta urratsek gorpuztu dute hausnartzeko, formatzeko, artikulatzeko eta saretzeko helburua duen espazio hau. Egun, askotariko zerbitzu, ekimen eta baliabideak topa daitezke bertan, esaterako, Emakumeentzako Jabetze Eskola, Sexuen aholkularitza, emakumeentzako aholkularitza juridikoa, elkar zaintzarako taldea, dokumentazio gunea, erakusketak, hitzaldiak, mahai inguruak... Horrez gain, Udaleko Berdintasun, Kulturartekotasun eta Lankidetzaren Arloen eta Amher-Sos Arrazakeriaren bulegoak ere bertan kokatzen dira.



Ibilbide honi amaiera emateko, herritik urruti xamar geratzen den Pagoaga auzora egin behar dugu salto, ezin baitugu aipatu gabe utzi **DIONIXI LIZEAGA AGERRE "PAGUAKO MAIXTRA"**. 1894an jaio zen Pagoagako auzoan, bertan ez zegoen ez elizarik ezta eskolarik ere garai hartan, eta beraz 5km-tara zegoen Ereñotzuari-no joan behar izaten zuten hurrek oinez eskolara; askok huts egiten zuten, batez ere, negu aldean. Ikasketak burutu ahala, auzotik irten ezinik zituen anai-arreba eta bizilagunak hartu zituen ikasle Dionixik etxeko sukaldean, 1914an Pagoagako eskola sortu zuen arte. 40 urtez aritu zen auzoko hurrei eskolak ematen. Gazteek ikasteko aukera izan zezaten gau eskolak ematen zituen; emakumeek baina ezin izaten zuten gerturatu, eta eurentzat igande eta jai egunetan ere ematen zituen eskolak. Dionixi bizi izan zen etxe atarian plaka bat jarri da bere omenez, emakumeek eskolen eta ikastolen sorreretan izan dute garrantziaren lekuko.

Amaitu dugu beraz gure hamar bonbila morez osatutako ibilbidea. Berreskuratu ditugu batzuk ahanzturatik, emakume guztiona den *Andre kaletik* hasita. Ozen diogu, *Azaroak 25eko plazan*, "Nahikoa da; Indarkeria matxistarik ez!" *Moio* kaletik pasatzean, jabetzen gara zein garrantzitsua den ikusezina ikusten ikasten jarraitzea une oro. *Leokan* labanderak gogoan, disfrutatu egiten dugu emakume artisten talentuaz. Ezkiaga pasealekuko kioskoak gogorazten digu, jendaurrean kantatzetik nola pasa daitekeen ganbarako kutxa bateko ezkutalekura; eta hala ere erretako paper horien errauntsak biziraun dute, *Joxepak* hain maitea zuen euskarak bezala. Historia ezagutu eta osatu beharra dugu, itzalean utzi dutenari fokua jarrita, *M.Cruz Lorenza*-k plazan bere lekua izan dezan. Herri honen bilakaeran ezin aipatu gabe utzi, *industrian lanean aritutako hainbat jatorritako andreak*, lan baldintza duinen alde borrokatu eta egungo eskubide asko lortu zituztenak. Biziki maite zuena egitera ausartu zen *Carmen Adarraga*, emakumeak kirolariak ere izan zitezkeela ikusaraziz. Hernani justuago bat lortze bidean, *Kulturarteko Plaza Feministan* topatuko dugu elkar, gure artean saretuz eta feminismoaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako borrokan.

Euskal Herriko sukaldetan a ze saltsa! *Paguako maixtrari* begiratu besterik ez dugu, etxeko sukaldetik auzoko eskola sortu baitzuen inongo errezetarik gabe. Eskolak sortzea baino ekintza politikogorik? Eta politagorik?



02.

“PROZESU HAUEK ERALDATZAILEAK DIRA; HITZ EGITEKO, ENTZUTEKO ETA BEGIRATZEKO MODUA ALDATZEN ZAIZU”

AITZIBER BLANCO GOIKOETXEA,
ELKARRIZKETA PROZESUTAN BIDELAGUN

Irati Sarasua Arabaolaza

Koka gaitezen: Hernani, 2014. Udaleko zinegotzien talde bat batetik, eta herritar talde bat bestetik, biltzen hasi ziren. Zertarako? Gure herriaren bizikidetzari ekarpen bat egiteko. Helburu komuna partekatuz urte luzez elkartu dira ezberdin pentsatzen zuten herritarrak eta politikariak euren artean hitz egiteko. Urte horietan guztietan egin den bidearen lekuko izan da euren bidelaguna, Aitziber Blanco Goikoetxea.



Hernanin izandako “elkarrizketa zirkulua”n hamar bat herritarrek parte hartu zuten; argazkian, “Memoriaren harria”ren aurrean, Kepa Pikabea, Mayi Ugartemendia, Leo Lecuona, Iratxe Ugalde, Estefania Morcillo, Yon Navarro, Juanjo Uria, Aitziber Blanco, Elias Miner eta Rosa Pellejero (argazkia: Urumeako KRONIKA).

Hasteko, Euskal Herri mailan, noiz eta nola sortzen da halako elkarrizketak egiteko beharra?

Nagusiki Gipuzkoan garatzen diren bizikidetza prozesu hauek modu formalean 2012an sortzen dira. Baina, egia da, aurreko urteetan egindako lana kontutan hartu gabe ezin direla ulertu. Gatazka edo indarkeria politikoa momentu gogorrenetan egon denean ere, gure gizartea oso polarizatua egon denean, egon dira elkarrizketaren bitartez gure desberdintasunak eta gatazkek kudeatzeko saiakera franko; modu antolatuan, elkarte edo eragile ezberdinen aldetik, eta baita ere norbanakoen aldetik. Urte gogor horietan ere zubi guztiak ez hausteko saiakera zintzoak egon ziren, eta horrek ere lagundu du prozesu hauek bideragarri egiten, finean ez ginela zerotik abiatzen.

Zergatik zabaldu zen bide hau 2012an?

Garai hartan aukera testuinguru berri bat irudikatzen zuten bi gertakari eman ziren. Alde batetik, ETaren indarkeria uztearen adierazpen irmoa dago. Erabaki horrek gure gizartearen zati bati lasaiago eta askeago bizitzeko aukera eman zion, euren bizitzak jomugan egoteari uzten zuelako.

Bestalde, Sorturen legeztatzearekin, proiektu politiko guztiek euskal erakundeetan sartzeko aukera berreskuratzen dute. Eta orduan proiektu politiko guztiek, berdintasun egoera batean, parte hartzeko aukera dute.

Horrez gain, momentu horretan gizarte mailan bakearen eraikuntzan, elkarrizketaren eta giza eskubideen eremuan lanean ari ziren zenbait eragile ginen; Baketik, Bakeola edota Lokarri adibidez. Testuinguru horretan hainbat herritatik eskaera batzuk iristen hasi

ziren. Ni garai hartan Lokarrin lanean ari nintzen eta guri lehen eskaera Errenteriatik iritsi zitzaigun. Bertan, herritar zein ordezkari politiko oso anitzen arteko elkarrizketa esparru bat abian jarri zuten, non azken hamarkadetan gertatutakoari begiratu nahi zioten. Eta horri heltzeko laguntza eskatu ziguten. Eta hala hasi ginen.

Hor hasi zen bidea, eta gaur arte iraun du. Zenbat herritan egin dituzue halako saioak?

Gipuzkoako Foru Aldunditik Bizikidetza sustatzeko lehen programa 2013an martxan jarri zen eta legegaldiz legegaldi jarraipena izan du. Programa honek udalerrri desberdinetan martxan jarritako elkarrizketa prozesuak sustatu eta babestu ditu eta horrek garrantzia izan du. Azken hamarkada honetan, 25 udalerririk parte hartu dute modu ezberdinean: batzuetan alderdi politikoen mahaia eratu da, besteetan herritarrena, eta egon dira bi mahaia aldi berean izan dituzten udalerrriak ere.

Udalerrri gehienetan, udaletako talde politikoak izan dira halako prozesuak sustatu dituztenak, herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea izanik gatazka eta indarkeriak euren herritarrengan eragindako minari eta sufrimenduari erreparatzeko ardura hartu dute; gainera, gertatutako guztiak ere udaletako bizitza politikoa zeharkatu izan du eta horrek ere halako prozesuei ekiteko zentzua ematen zion.

Udalerrri bakoitzean izandako prozesuek berezko ezaugarriak dituzte, testuinguru desberdinek, prozesuak abiatzeko uneek eta parte-hartzen duten pertsonen ezaugarritzen baitute prozesu bakarra. Eta nik, azken hamar urteotan lagundu ditudan prozesuez hitz egin dezaket zehazki.

Herri bakoitzeko esperientzia bakarra izan da, bakoitzak bere ezaugarriak dituelako, baina prozesuek antzekotasunak ere izango zituzten, ezta?

Badira bai elementu komun batzuk, bai. Prozesu guztien hastapenetan bazen benetan bizikidetzari anitzen artean heltzeko borondate bat, oso ondo jakin gabe hori nola gauzatu. Eta hasierako borondate eta zeuden kezka horietatik abiatu ginen.

Oso hasieratik argi izan genuen halako espazioek bermatu behar zutela aniztasuna: hau da, alderdi politikoei dagokienez, udal mailan ordezkari zuten alderdi guztien parte hartzea ahalbidetzeak berebiziko garrantzia zuen, eta sortzen ziren herritar esparruetan, aniztasun esanguratsu bat lortzeko ahaleginak egiten ziren.

Bestalde, prozesu izaera bera, nola hasten ginen bagenekien baina ez nora iritsiko ginen, nola bukatuko genuen. Aldez aurretik ez zegoen bide orri bat idatzita, elkarrizketa linealak ez zirela antzematen genuen. Beraz, guzti honek ziurgabetasun handia eragiten zuen. Bide horri heltzeko beraz, segurtasun eta konfiantza maila bat eman zitzaketen zenbait elementu hasieratik adostea ezinbestekoa izan da eta horiek bidean zehar garrantzitsuak izan dira.

Nola bermatzen da aniztasun hori? Zein da gutxieneko hori?

Aniztasunarena oso erronka potentea da eta bere denborak behar ditu. Baina elkarrizketa esparru hauetan aniztasun esanguratsu bat lortzeko ariketa egiazkoagoa bilakatzen du, bai bertan parte hartzen duten pertsonentzat zein herritarrentzat, halako esperientziak gizarteratzen diren momentuan. Dena den, zenbaitetan aniztasun zabal bat bermatu nahi hori mugatzailea ere izan daiteke eta halako kasuetan aniztasuna elkarrizketa esparrura ekartzeko modu desberdinak aztertu beharra izaten dira, hau izan zen adibidez Hernaniko herritarren kasua.

Aniztasun esanguratsua lortu ote dugun jakiteko modu bat elkarri entzuterakoan norberaren errealita-

tetik aldentzen diren errealitateak taldean direla ikustea izaten da. Dena den, aniztasuna modu zabalean begiratu behar da, ez soilik ikuspegi ideologiko edo politikotik, baita ere genero edo adin ikuspegitik, indarkeriarekiko izandako harremanaren ikuspegitik edo gizarte mailan izandako ikuspegitik adibidez. Gertatutakoarekiko ertz oso desberdinak ematen ditu, bai eta aurrera egiteko aterabide berriak bilatzen lagundu ere.

Esan bezala, aniztasun horren garrantzia ere ezinbestekoa da kanporantzako pausoetan, bai ordezkari politikoei zein herritarrek ematen dituzten horietan. Jendeak ikusten duenean zeintzuk elkartu diren esaten dute: "Bizikidetzari ariketa bat izango zen, zeren oso desberdinak dira, eta horien arteko elkarrizketa ez zen erraza izan behar". Horrek balio erantsia ematen dio pertsona horiek gero adierazten dutenari.

Esango zenuke prozesu guztiek helburu bera dutela? Edo talde bakoitzak berea markatzen du? Zein da helmuga?

Nik uste dut meta-helburu bat badagoela; gure herraren bizikidetzari ekarpen bat egiteko nahia. Horrez gain, gero esplizituki talde bakoitzak helburu zehatz batzuk markatzen ditu.

Perspektibarekin ikusita, alderdi politikoen mahaietan gehien bat saiatu dira herriko memoria berreskuratzen, izandako giza eskubideen urraketak edo sufrimenduak artatzen, jasotzen, aitortzen eta erreparatzen, eta euren herriko bizikidetzan eragin positibo bat izaten.

Eta herritarren helburuak gehiago joaten dira ulertzera zer gertatu den, zergatik gertatu den, eta gertatutakoa ez errepikatzeko lagungarriak izan litezkeen oinarri etikoak zehazten.

Bidelaguna zarela aipatu didazu hasieran. Zein izaten da zure egitekoa halako saioetan?

Bidelagun izatea prozesuan egoteko modu bat da, guk ere toki bat dugu prozesuarekiko eta pertsona

horiekiko ardura bat daukagu. Baina egia da ere, gure egoteko modu horrek ere bilakaera bat izan duela. Esaterako, 2012raino elkarrizketa balioan jartzen horren garrantzitsua zenean, espazioarekin askoz ere zurrunagoak ginen, elkartzen gintuena bilatzen genuen nagusiki.

2012tik aurrera testuinguru berri baten aurrean elkarrizketa konplexuagoak bideratzeko aukera ematen dela ikusten dugu, eta gainera, ikusten dugu jendea iristen dela euren emozioak, bizipen sakonenak irekitzeko borondatearekin, eta batzuetan behararekin, orduan guk ere beste toki bat bilatu behar dugu.

Hau da, bilatu behar dugu toki bat non, adibidez, emozioak sostengatu ditzakegun, jakinik gu ez gara la terapeutak. Baina egia da elkarrizketa batzuk terapeutikoak direla. Jendeak beretik asko jarriko du, eta zuri eskatzen dizutena da horri aurre egiteko moduak.

Bidelagun garen neurrian gu multi-partzialak gara, taldekide guztiei ulermen bera eskaintzen diegu, horrek ez du esan nahi arrazoia ematen diegunik edo baten edo bestearen alde gaudenik, baizik eta adierazten dituzten kezka, behar edo muga guztiak berdin ulertzeko gaitasuna dugula.

Aldiz, talde bezala prozesua zaintzeko hartutako akordio eta konpromisoen alde gaude. Hau da, prozesuarekiko talde kide guztiek duten erabakitze aukera eta ardura aktibatzen saiatzen gara zintzotasunaren bitartez.

Nola sortzen dira taldeak?

Herritar taldeak oso modu desberdinean sortzen dira; batzuetan herritar batzuen ekimenez, eta beste batzuetan udalaren bitartez. Hernaniko kasuan adibidez, herritar talde bat izan zen beste herritar batzuk deitzeari ekin ziotenak. Halakoetan herritarrek askotan esaten dute “bueno, deitu banaute pentsatuko dute nik ekarpen bat egin dezakedala. Norbaitek nigan konfiantza jarri du”, eta dei horrek bere biziko pisua hartzen du herritarren parte hartzean, norbaiten zureganako konfiantza zure konpromiso bilakatzen da.

HITZA, GILTZARRI

Herritarren kasuan, bertan egoteko baldintza batzuk zehazten dituzte? Hitzak, jarrerak... oinarri batzuk zehazten dira?

Bi argibide. Alde batetik, baldintzak aipatzen ditugunean ez dugu esan nahi elkarrizketa baldintzatu egiten dela, hau da, “besteak hau egin edo esan arte ez dut hitz egingo”. Baldintzak jartzea nolabaiteko erosotasunez hitz egiteko akordio batzuk zehazteko baizik. Bestetik, elkarrizketarako baldintza hauek bai espazio herritarretan zein politikoetan finkatzen dira eta oso antzekoak izan ohi dira. Kontutan hartu behar da, halako espazioetan oso elkarrizketa sakon eta konplexuak izateko aukerak sortzen direla eta horietan murgiltzeko espazio seguru batean gaudela sentitu behar dugu.

Azken finean, espazio hauetan lortu behar duguna da partaide guztiek espazioa eta prozesuarekiko bai ardura zein boterea (erabakitze ahalmen bezala ulertuta) partekatzea. Denok daukagu aukera berdina esateko zer den behar duguna espazio horretan nolabaiteko erosotasunarekin aritzeko, bai eta espazioak guretzat zentzua izan dezan. Hor adostuko dira partekatuko ditugun helburuak, prozesua zaintzeko baldintzak, zailtasunak kudeatzeko prozedurak eta landu nahi dugun agenda zehatza, adibidez.

Zeintzuk izan ohi dira baldintza horiek?

Konfiantzak eraikitze aldera konfidentzialtasunak berebiziko garrantzia du. Partaide guztiek espazio hauetan entzundakoa zaintzeko ardura hartzen dute, elkarri babesa adieraziz. Bestalde, entzumena dago, entzuteko saiakera, entzumenetik ulermenera pasatzen baikara. Horrez gain, zintzotasuna eta konpro-

misoa eskatzen da, zintzotasuna bakoitzaren mugak adierazteko, baina baita aukera eremuak lantzeko ere. Partekatzen diren lanerako baldintza hauek gure gaitasunez hitz egiten digute, jada garatuak ditugun gaitasunez edo bidean garatzen direnez. Eta baldintza guzti horiek prozesua zaintzen laguntzen digute, elkar zaintza horrek gai gatazkatsu eta konplexuei aurre egiteko espazio seguruak eraikitzen lagunduz.

Bestalde, parte-hartzea bermatzea. Hilabetean behin biltzeko konpromisoa hartzen badugu, ausentziek pisu handia hartzen dute. Elkarrizketa hauek duten prozesu izaerarekin lotuta dago hau, bileretan gaiak lantzeaz gain emozioak mugitzen dira, beraz, bilera bat galtzeak gertatzen ari dena ulertzea zaildu dezake edo bilera batean mugitutakoa hurrengoan ez bideratzea suposatuz.

Alderdi politikoen kasuan, baldintza horiei gehitzen zaie bizikidetzaren gaia alderdikierietatik aldentzeko konpromisoa, esparru hauek posizionamendu politiko soiletatik haratago joateko aukera ematen dutelako. Eta espazio hauetan, herritarren espazioetan ez bezala, testuinguru politiko orokorrak edo udaleko bizitza politikoak eragin ezkorrak izateko arriskua izaten da, beraz, halako egoerak daudenean horiek kudeatzeko prozedurak aurreikusteak ere garrantzia izaten du.

Kontatuko didazu lehenengo saio horiek nolakoak izaten diren?

Normalean herritarren espazioetan ez dakite norekin topatuko diren. Lehenengo bilera bat izaten da jakiteko zein beldur, kezka eta zalantza dauden. Hori horrela, argitzeko bilerak izaten dira, prozesua hastapenetik batera eraikiko dugula azaltzeko. Hain justu, hasierako marko hori adosten dugu, eta hor ematen dira lehenengo elkarrizketak, hor hasten da prozesua.

Erosotasuna lortzea zaila izaten da?

Hasieran beharrezkoa da denbora bat elkar ezagutu eta konfiantzak eraikitzeko, eta egia da gero bakoitzak

bere tokia aurkitzen duenean berriro ere beldurrak agertzen direla gai zehatzetan sartzen hasten garenean. Zergatik? Bada, giro polita sortu duzu, eta hor sortzen den beldurra da, zertarako alperrik min egin elkarri, zertarako egin aurre orain gure desadostasunei eta gure ikuspegi desberdinei lortutako giro atseginarenean. Baina, gero prozesuak adierazten duena da lortu den giro eta konfiantza horrek laguntzen diola besteari heltzen.

Horrek ez du esan nahi bilera batzuk ezerosoak edo zailak ez direnik, zeren badira. Gaietan mugitzen garen neurrian eta horiei zintzoki heldu ezker ezerosotasunak sortu daitezke, gure baitan mugimenduak ematen dira eta hori ez da beti erraza, baina hori gertatzen da neurri batean elkarrizketa hauek oso egiazkoak direlako.

Zenbateko taldeak egiten dira gehienez?

Talde txiki samarrak izaten dira, ezinbestekoa delako erosotasuna eta konfiantza lortu ahal izateko.

Normalean, taldeak ez dira hamar baino gehiagokoak izaten herritarren kasuan. Bestalde, politikarienean, eurek erabakitzen dute alderdi bakoitzetik zer nolako ordezkaritza nahi duten; normalean izaten da alkatea eta alderdi bakoitzetik bi edo hiru, eta azken hauek, normalean, zinegotziak izaten dira.

Aldarteak aldatzen joaten da saioetan zehar, konfiantza lortu ahala?

Bai. Aldarteak hobetzen da, baina hilabeteetan zehar gauzak ere gertatzen dira; halako prozesuak ez dira linealak. Niri espiral baten mugitzen direla esatea gus-tatzen zait. Hasieran espazio seguru eta konfiantzazko bat eraikitzeko denborak hartzen dira, nolabaiteko erosotasunez hitz egiteko. Baina gaiak lantzen aurrera egin ahala, desadostasunak agerian jartzeko baldintzak sortzen dira eta horrek ezerosoak izan daitezkeen elkarrizketei aurre egitea suposatzen du. Momentu horietan asko laguntzen du ikusteak egiten ari zaren

prozesu horrek emaitzak emateko gaitasuna duela. Elkar ulermen batera iristen ari direla ikustean, sentitzen dute zentzua duela ordura arte emandako guztiak.

Eta jakina, politikariengan ere berdin, elkarrekin urratsak emateko gai diren neurrian euren aldartea hobetzen da, prozesuak zentzua duelako. Aldiz, zenbait eztabaida asko luzatzeak eragin ezkorra izan dezake, horrek prozesuaren zentzua zalantzan jartzen duela. Kasu batzuetan luzapenaren arrazoiak gaiak suposatzen dituen mugimenduek eragiten dituen kezka izan daitezke, beste batzuetan kanpotik iristen diren oztopo edo erresistentziak izan daitezke. Kasu hauetan ikusi dugu elkarrekin aurrera egiten lortzeko denborak zaintzea garrantzia duela, baina aldi berean gaiari iskin egin gabe eta aterabide bat bilatzeko epe bat jartzea lagungarria izaten da. Azken finean, nagusiki espazio politikoetan, agendan jarritako gai guztiek alderdi edo herriko sektore baten behar eta nahiak jasotzen dituzte eta horiei erantzun bat bilatzea taldekide guztien ardurara bilakatzen da. Horrek ematen dio prozesuari zentzua eta baliagarritasuna, beraz, lehenago edo beranduago gaia landu eta itxi beharra dago.

Beraz, konfiantza ez da kontu estatiko bat dinamikoa baizik eta prozesuan zehar bere gorabeherak izaten dira. Baina argi dagoena da, lortzea zaila den bezala, galtzea oso erraza dela eta horrek bere zauriak uzten dituela. Beraz, behin hori gertatzen denean elkarrekin eta zintzoki, konfiantzak berreskuratzeko beharrezkoak diren urratsak eman behar dira, elkarrizketa emankor bat bermatzeko baldintza baita. Kasu batzuetan, adibidez, halako egoerak konfidentzialtasuna hautsi denean gertatzen dira.

Foro guztiek agenda berdinak osatuta daude? Zergatik erabakitzen du herritar foro batek bere ibilbidea amaitutzat ematea?

Foro bakoitzak bere helburuak eta horiek betetzeko agenda zehazten du. Behin partekatzen diren helburuak nolabait bete direnean, helburu berriak zehaztu daitezkeen begiratzen dute. Halakoetan, batzuk ase-

bete sentitzen dira eta beste batzuek lortutako konfiantzazko giroa beste gai batzuk lantzeko baliatu nahi izaten dute. Halakoetan zintzotasunez partekatzen denari begiratzen zaio eta partekatzen den helburua egindako ibilbidea modu duinean ixtea dela ikusten denean, egindako prozesuaren gizarteratze faseari ekiten zaio. Fase honek ere bere denborak behar izaten ditu herritarrei lortutakoa ulertarazteko eta egindako lana balioan jartzeko. Beraz, prozesu bat ixtea ez da porrota, erabaki kontziente eta ausarta ere bada, askotan ordura arte modu zaindu eta babestu batean garatu den prozesu bat plazara ateratzea suposatzen duen neurrian.

Eskuzabaltasun handia topatu duzu?

Izugarria. Eskuzabaltasuna, konpromisoa, jende ausarta. Halako talde batean arriskuak hartzen dituzu, maite ez dituzun gauzak eta haserretzen zaituztenak entzungo dituzu, bestalde, arriskuan jartzen zara aldaketa eta mugimendu bat suposatzen duelako eta kontutan hartu behar da esposizio maila handi bat suposatzen duela, oso bizipen sakonak azaleratzen direla, gogorrek batzuk, zenbait kasutan bestelako esparrutan partekatu ez dituztenak. Prozesu hauek eraldatzaileak dira; hitz egiteko, entzuteko eta begiratzeko modua aldatzen zaizu. Hortaz, leku horretan jartzeko ausarta izan behar duzu.

Nolako jarrerak topatu dituzu? Oso ezberdin pentsatzen duten pertsonak biltzeaz ari gara hizketan...

Nik uste dut normalki halako prozesuetan badagoela predisposizio bat. Baina, batzuetan, ikusten duzu adostasun batera iritsi ezin duzunean ezerosotasuna, mina eta haserrea. Eta noski, elkarrizketa batzuk oso beroak izaten dira; espazioak horretarako aukera ere ematen du. Argi dugu, ezin diegu betoa jarri gure emozioei.

Orokorrean, jarrera da minik ez eragitearena. Gehiengotan, jendeak oso ondo pentsatzen du esango duen

hori, minik ez egiteko. Halere, batzuetan egon dira haserreak eta egoera oso deserosoak denentzat.

Indarkeria lehenengo pertsonan bizi izan duten pertsonak egon izan dira halako saiotan. Horrek erraztu edo zaildu egiten du bidea?

Kasuaren arabera ezberdina izan da. Gehienbat eragiten die inguruan dituzten pertsoneri, indarkeria lehenengo pertsonan pairatu duen norbaiten aurrean hitz egiteak pisu handiagoa daukalako. Hortaz, esaten den hori zaintzeko joera gehiago dago, ez mintzeak pisua hartzen du.

Baina, pertsonaren arabera izaten da. Egia da bere biktima izaeran bakarrik kokatzen bada zailagoa izango dela, agian bilatuko du berak bezala indarkeria pairatu duen jendea, hitz egiteko eta ulertzeko beraiek nola eraman duten. Kasu horretan bere antzeko esperientziarik duen jendea ez aurkitzeak bakardadea eragin diezaioke, horrexegatik oso garrantzitsua da hasieratik argi adieraztea taldearen helburuak, horren arabera pertsona bakoitzak hartatu dezan parte hartu nahi duen hala ez. Gertatu daiteke ere, pertsona horrek, indarkeria eragin dion hori edo unibertso horretako jendea bilatzea taldean, euren aitortza bilatuz. Prozesu hauetan garatzen den entzumen sakonak eta elkar ezagutza mailak besteen minak onartzea eta horien ardura hartzea ahalbidetzeko aukera eskaini ohi dute, baina egia da ere asebetetze maila ez dela beti berdina, zenbait kasutan minak leundu baino areagotuz. Beraz, kontu handia izan behar da taldeak osatzean, oso zintzoki adierazi behar da hasiera batetik zertarako elkartzen garen, bakoitzak duen egoera eta dituen minen arabera askatasunez erabaki dezan.

Bilera hauek diskretuki egiten dira. Bidean zehar herria ez da kontzientea hau dena gertatu dela. Publiko egitean zein inpaktu izaten du kalean?

Inpaktua neurtzea oso zaila da. Gure erronka ondorengoa da: konfidentzialtasuna eta diskrezioa ezin-

bestekoak dira elkarrizketa horiek emateko, baina aldi berean, herritarrok orokorrean prozesu horretatik at daude, orduan nola egiten dugu prozesu hauek zabalatzeko? Nola egin herritar eta eragile gehiago prozesuaren parte izateko?

Hernanin, adibidez, herritar taldearen azken fase honetan burututako "elkarrizketa zirkulua" abian jarri zenean, helburua prozesu diskretu bat egitea zen, taldearen asmoa ez zen bertan hitz egindakoa eza gutzera ematea, eskaintzen zen konfidentzialtasuna eta diskrezioa ezinbesteko baitzen espazio seguru bat bermatzeko. Baina esperientzia hain aberasgarria izan zenez, azkenean Hernaniko 12 herritarrek erabaki zuten bizitako elkarrizketa Biterin publiko egitea. Biteri bete egin zen. Sinistu nahi dugu horrek eragin bat izan duela, gutxienez bestelako elkarrizketa informalak sustatzeko gaitasuna izan duela, baina beti zaila da halako ekimenen eragina neurtzea.

Mahai politikoan erronka nagusiak udaletxean burutzen diren elkarrizketak mahaitik haratago alderdietan eta udaletzeko bizitzan ere eragin positibo bat izatea da. Normalean ordezkari politikoen artean hartutako erabaki bat publiko egin aurretik alderdian bertan kontrastatzen dituzte, alde batetik ematen diren urratsen zentzua ulertzen laguntzeko, eta bestetik, pausu horiek babestu asmoz, alderdikideen oniritzia izateko. Zoritxarrez, beti ez da lortzen, eta batzuetan gertatzen da nazional mailan alderdiak nahiko urrun daudela udalean egindako urratsetatik eta hartzen dituztela udalerrian emandako pausoen kontrako erabakiak, kontutan hartu gabe horiek herriko bizikidetzan izan dezakeen eragina.

HERNANI, EGITEKO MODU BAT

Hernaniko kasuan zentratuz, nola sortzen da Hernaniko saioak egiteko ideia? Nori bururaten zaio, zein egoeratan sortzen da eta nola jasotzen duzu zuk herrian halako zerbaiten beharra dagoela dioen deia?

Hernaniko kasuan mugarri bat 2013an Erreterian antolatutako Eraikiz, zine eta antzerki egitasmoa izan zela esango nuke. Bertan, lehenengo aldiz elkar-tu ziren PPTik EH Bildurako zinegotziak. Testuinguru horretan, herritar talde bat hurbiltzen zaigu Lokarrira. Donostiako gure bulegora etorri ziren hiru herritar, eta esan ziguten grina zutela, Julen Mendoza Erretereriako alkatearekin egon zirela, eta ea Lokarritik zer egin genezaken. Hor hasi ginen. Orduan hasi ziren eurak beste hainbat herritarri deiak egiten, eta taldea osatu zuten, 10-11 lagunekoa.

Bestalde, 2013an Gipuzkoako Foru Aldundiak Bizikidetza sustatzen programa ezagutzera eman zuen eta Gipuzkoako Udal batzuk bizikidetza prozesuak abian jartzeko lehen urratsak ematen hasi ziren eta horietako bat Hernaniko Udala izan zen. Orduan Hernaniko Udala ere Lokarrirekin harremanetan jarri zen. Orduan alderdi guztiekin hitz egiten hasi ginen, prozesu bat abian jartzeko baldintzak ba ote ziren aztertzeko eta 2014an adostu zen Udaleko mahaia martxan jartzea. Iragan urtera arte, prozesua modu diskretuan garatu zen, baina ordezkari politikoen arteko elkarrizketetatik eratorritako hainbat urrats publikoak izan dira.

Beraz, 2014an paraleloki hasi ginen, Udalarekin eta herritarrekin lanean.

Herritarren kasuan, zer nolakoa izan zen esperientzia?

2014 eta 2016 urte bitartean ibilbide pertsonal eta ideologiko ezberdina zuten hamar herritarrek elkar ezagutza prozesu bat burutu zuten. Euren bizipe-



2014 eta 2016 urte bitartean, azken hamarkadetan Hernanin gertatutakoaz aritutako hernaniarrek euren bizipenak herritarrekin partekatu zituzten, Errioguarda enea jatetxean (argazkia: Urumeako KRONIKA).

nak partekatu eta azken hamarkadetan gertatutakora hurbildu ziren. Egindako ibilbidearen emaitzak 2016ko uztailean Errioguardan herritarrekin partekatu zituzten, ordura arte elkartzen aritu ziren toki berdinean.

Hori egin ostean, taldeko zenbait kidek erabaki zuten euren beharrak asetuta zeudela eta hor amaitu zen euren bidea. Aldiz, taldea osatzen zuten 5-6 lagunek, aurrera egitea erabaki zuten, oso ondo jakin nola egin jakin gabe, euren bizitakoa zabaldu nahi zuten, landutako elkarrizketa dinamika zabaldu. Momentu horretan, kezka nagusia berriz ere taldearen aniztasuna nola bermatu izan zen, aniztasunak duen garrantziaz jabetuta. Azkenean, taldearen osaketa zabaldu beharrean Hernaniko bizipen anitzak taldera ekartzea adostu zuten eta ondorengo urteetan luzatu zen entzumen ariketari ekin zioten.

Zein entzumen ariketa egin zenuten?

Entzumen ariketak 2019an hasi ziren, Errioguardan, taldeko kideak, ni neu eta gonbidatzen zen pertsona elkartzen ginen. Azken honi ongi etorria ematen genion, azaltzen genion nortzuk ginen eta zer egin

nahi genuen. Eta orduan berea zen hitza, pertsona hori entzun egiten genuen.

Ariketa honetan parte hartu izandako batzuk azpimarratu digute eurentzako garrantzitsua izan dela ikustea beste herritar batzuk bere bizipenak entzuteko adierazitako nahia.

Zenbat pertsona elkarrizketatu ziren, eta zer egin zenuten elkarrizketa horien ondoren?

Azkenean, eta pandemia bitarteko, bederatzi pertsona elkarrizketatu genituen. Elkarrizketa horietako batean elkarrizketatuak galdetu zuen ea taldeak horrekin guztiarekin zer egingo zuen, eta hor interpelatua sentitu zen taldea. Lehen asmoa entzundakotik ondorio batzuk ateratzea zen, baina bidean Duke Duchscherer ezagutu genuen. Bera nazioarteko elkarrizketa konpontzailetan aditua da eta orduan elkarrizketatutako pertsonak elkartzeko aukera aztertzen hasi ginen eta euren arteko elkarrizketa bat bideratzeko proposamena luzatu genien. Aurrera egiteko pertsona guztien onespina ezinbestekoa zen. Euren galdetu ondoren elkarrizketatutako zazpi lagunek baiezkua eman ziguten eta taldeko kideekin batera hamabi pertsonaz osaturiko elkarrizketa zirkulua egin genuen 2022ko maiatzean.




Lehenago aipatu bezala, hasierako asmoa elkarrizketa diskretua bat egitea zen, mesfidantzak eta kezkek nagusi ziren hasierako une horietan. Baina hiru egunetako elkarrizketa zintzo eta sakonetan bizitakoak aurreikusitako helburuak eta ustea gainditu zituen eta iragan urtean esperientzia gizarteratzea erabaki zen. Gizarteratze hau irailean Biteri Kultur Etxean egindako agerraldian gauzatu zen Hernaniko askotariko herritarren aurrean, bai eta ondorengo asteetan agerturiko elkarrizketa eta erreportajeetan.

Politikarien mahaiak urrats garrantzitsuak eman dituela aipatu duzu.

Nire ustez, garrantzitsua da azpimarratzea legealditik legealdira lanean jarraitu dutela. Horrek erakusten du alderdi guztiek bizikidetzarekiko duten konpromisoa, alde zurretik jakinda eurentzako prozesu hauek ez direla errazak. Izan ere, eurentzako esfortzu handia da egunerokoan izaten dituzten zailtasunen gainetik prozesuarekin jarraitzeko euren arteko konfiantzei eustea. Eta hala eta guztiz ere, 2015ean Ave Maria parkean memoriaren harria jartzeko gai izan ziren, Hernaniko herritar oso anitzak espazio berdinean

elkartuz. Nolabait toki honek bere balio sinbolikoa badu, are gehiago herritarrek ere hala adierazi baitzuten Kronikan egindako erreportajeetan argazkirako tokia hautatu zutenean. Bestalde, memoria berreskuratzea, biktimen aitortza eta erreparazioa dira mahai politikoen zereginetako bat, eta alor horretan beste mugarri bat izan zen iaz "Hernani 1960-2021. Motibazio politikoko indarkeria eta giza eskubideen urraketa larriak" liburua aurkeztu izana. Lanketa honek sufrimendua eta biktimekiko begirada partzialak, edo gureak eta besteak, dinamikak gainditzeko gaitasuna izan du. Finean, orain arte ez bezala, biktima guztiei begirune bera adieraztea suposatu du, izandako giza eskubide urraketa guztiak ikusaraziz, iragan gogorra onartu eta aitortuz, inor baztertu gabe. Oraindik indarkeriaren oihartzunak oso bizirik dirauenean, mina eragiten duen hori ukitzea ez da lan erraza, baina giza eskubideetan oinarrituta dagoen metodologia baliatzea lagungarria izan da beharrezkoa zen lanketa honi ekiteko. Bide horretan elkarrizketa asko beharrezkoak izan dira, elkar ulermena, zintzotasuna eta empatia garatuz dokumentu bateratu batera iristeko. Eta beharbada horrek ematen dio egindako lanari balio erantsia; elkarrekin egitea zaila izan arren lortu dela, eta kotsentsuz egin dela.





Arlo politikoan, Udal Bizikidetzeta Mahaiak urrats garrantzitsuak eman ditu, azken urteotan. Horien adibide, 2015ean Ave Maria parkean jarritako "Memoriaren harria" (eta Maialen Lujanbioren bertsoak) eta 2023an aurkeztutako "Hernani 1960-2021. Motibazio politikoko indarkeria eta giza eskubideen urraketa larriak" liburua (argazkiak: HUA/ Argazkiak/DVLaureano Matias Rodriguez - Urumeako KRONIKA).

Zuretzako zer nolako esperientzia izan da Hernanikoa?

Konplexua eta ederra. Alde batetik, Udaletik memoria eta aitortzaren bidea bertan ordezkari politikoak duten lau alderdien artean eta kontsentsuz abian jartzea lortu dute, eta bestetik, herritarren aldetik, gai izan dira su baxuan oso bizipen anitzak eta kasu batzuetan kontraerriak izan dituzten pertsonen arteko elkarrizketa gauzatzeko eta herriarekin partekatzeke.

Esan bezala, udalerrri bakoitzak bere prozesu propioa garatzen du. Prozesu bakoitzean erraztatzaile bezala beste toki batzuetako tresnak edo metodologiak ekarri ohi ditugu eta tokian toki metodologik horiek garatu edo egokitzen dira. Hernanin hala gertatu da egindako elkarrizketa konpontzailearen kasuan. Dukek begirunez azpimarratzen zuen zein garrantzia zuen elkarrizketa egitasmo hau komunitatetik sortu izanak. Herritar batzuk izan ziren beste herritar batzuk deitu zituztenak. Herritarren dei horiek elkarrizketan parte hartzeari baiezkua emate-rakoan ezinbestekoak izan direla esan daiteke, eta are gehiago, ikusteak deitzen gaituzten herritarrak ere elkarrizketa berdinean parte hartuko dutela. Egiteko modu honek komunitate sentimendu sakon eta zabalagoa eraikitzen lagundu duela iruditzen zait eta Dukek duen ezagutzatik, beste toki batzuetan ikusitakoarekin alderatuz, egiteko modu hau berritzailea dela adierazi zigan.

Beraz, niretzat aukera handia izan da Hernaniko elkarrizketa prozesu hauen laguntzailea izatea, asko da ikasi dudana bai pertsonal zein profesional mailan. Nire aldetik eskerrak ematea besterik ez dut, nigan jarritako konfiantzagatik eta herriko bizikidetzari ekarpen bat egite aldera esparru bakoitzeko partaideek egindako lan zintzoagatik.

Herritarrak asebeteta sentitu direla esango zenuke?

Hori eurek esan beharko dute, baina entzundakoa eta irakurritakoagatik, orokorrean entzumen ariketa oso sakona eta zintzoa izan dela esango nuke, bai eta hasiera bateko espektatiba guztiak gaintu dituen ere. Behar bada adierazgarri nabarmenena esperientziaren berri herrian eman izana da. Uste dut hasieratik amaieraraino izandako zaintza eskertu dutela, baita momentu oro benetan elkarrekin erabakitzeke aukera bermatu izana, zintzoki jokatu izana ere.

Esango zenuke Hernanin egiteko bidea zela itxi dela?

Ezetz uste dut. Hernanin asko da sufritutakoa, asko izandako giza eskubideen urraketak eta bizitakoa. Beraz, oraindik egia, erreparazioa zein elkarrizketaren eremuan lana dagoela iruditzen zait. Orain arte emandako pausuek hurrengoak emateko oinarriak jartzen lagundu dezakete, bide partekatu bat irudikatzen giza eskubideen errespetuan eta entzumen sakonean oinarritutako bide bat.

Jada hamar urte igaro dira bizikidetzak eraikitzeke prozesua abian jarri zela eta asko da hortik ikasitakoa. Orain arte emandako urratsek zerbait adierazi badigute da bizikidetzak eraikitzeke denon beharra dugula, inor baztertu gabe eta denok modu erosoan parte hartzeke baldintzak eraiki behar ditugula. Baita desberdinen arteko elkarlanetik eta kontsentsutik pausu oso esanguratsuak emateke gaitasuna dagoela ere. Baina prozesu guztiak bezala, une bakoitzean eman daitezkeen urratsak aztertu behar dira, dauden zailtasunei nola aurre egin ikusi, bakoitzaren denborak zainduz eta aurrera egiteke baldintzak sortuz. Eta Hernani horretan dabilela iruditzen zait.

03. ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK HERNANIN

Xabier Iriarte Ansorena

Euskal Herrian, munduko beste herri askotan bezala, ohikoa da herri eta hirietako jaietan erraldoi eta buruhandien konpartsen irteera. Hernanin dagoeneko 75 urte igaro dira lehen konpartsa atera zenetik, eta 25 urte egungo erraldoiak eta buruhandiak sortu zirenetik. Ospakizun honen urteurrena aprobetxatuz ekitaldi honen jatorriaz zerbait gehiago azaltzen saiatuko gara.



Euskal mitologiako jentil baten irudikapena.

Erraldoiak kondaira zaharretan

Mitologiaren arabera, erraldoiak tamaina eta indar miresgarriko izakiak dira, hainbat arraza eta kulturatako istorioetan agertzen direnak, hala nola indiarra, grekoa, germaniarra, hebrearra, euskalduna etab. Euskal Herriko paradisu mitologikoan jentilak edo paganoak mendietako erraldoiak ziren, sekulako indarra zutenak. Herriko gizon indartsuen kontra borrokatzen zuten eta mendiko harri handiekin jolasean ibiltzen ziren.

Errolan, Sugar, Sanson edo antzeko izenekin ezagunak dira jentilen kondaira batzuk. Honekin lotuta, Hernanitik gertu dagoen Adarra mendiaren inguruan bada Sanson izeneko harria. Buruntza menditik harria botatzen hasi omen zen Sanson, Adarrako puntara jaurti nahian, baina behi kakatan irrist egin eta orain dagoen lekuan erori zen Aballarrin. Jentil hauek *Kixmi* (Kristo) jaiotzearen desagertu ziren.

Euskal mitologian forma ezberdinak hartzen dituzten pertsonaia asko daude: Mari, Basajaun, Tartalo, lamiak, sorginak... Eta hainbat dohain ematen zaizkie eta miretsi eta gurtuak izan dira.

Erraldoiak kristau festetan

Gure kondairan oraindik bizirik dirauten pertsonaia horiei buruzko elezharrez gain, bada erraldoien konpartsek parte hartzen duten jaiei buruzko historia idatzia.

Euskal Herrian konpartsa hauen idatzizko aipamen zaharrenak XVII. mendekoak dira baina munduko beste leku askotan Erdi Arotik ospatzen den Corpus Christi festarekin loturiko aipamenak ugariak dira.

XIV. mendearen amaieraz geroztik, mendebaldeko kristau tradizioaren barruan Corpus Christi ospakizunetan erraldoiak, buruhandiak, herensugeak, taraskak, dortokak, arranoak, maskarak eta sinbologia erlijiosoz betetako garaien-gurdiak aipatzen dira, herritarren gogo txunditu, hunkitu edo dibertitzeko.

Orduko sinesmen batzuen arabera erraldoiak, Jainkoari errespetua adierazten zioten eta munduko hainbat lur ordezkatzen zituzten errege boteretsuekin lotuta zeuden. Beste pertsonaiek garaitu beharreko bekatua eta gaiztakeria irudikatzen zuten. Buruhandiak aldiz, Jainkoaren beldur ziren eta horregatik ibiltzen ziren beti korrika.


Hernanin, jai erlijioso hau hainbat mendeetan zehar egin zela jasota dago. Orain dela urte gutxi arte Corpus Christi eguna, Hernanin beste toki askotan bezala, jai eguna izendatuta zen, eta handiki ospatzen zen. Elizkizunen artean prozesio bat kaletan barrena egiten zen.

XVI. mendetik aurrera, Hernaniko Udal Artxiboan kontserbatzen diren datuen arabera, prozesio horretan elizgizonen eskuetan eukaristiako sakramentu santuaren irudia eramaten zuten palio baten azpian, eta eliztarrekin batera, ezpata-dantzariak, txistulari edo *tanborinoak* eta *fusileroak* parte hartzen zuten. Une batzuetan Santisimoaren aurrean dantza egin, eta fusileroak bere fusilekin salbak botatzen zituzten.



Corpuseko prozesioetan erraldoi eta buruhandiekin batera taraska edo dragoia ateratzen zen.

Hernanitik gertu dagoen Tolosa herrian garai berean mendeetan iraun zituzten Corpus Christi eguneko antzeko ospakizunek. Hernanin bezala, ohiko ezpata dantzariak eta fusileroak ateratzen ziren baina ohikoa zen haiekin batera beste pertsonaia ibiltzea. XVII. mendetik aurrera aipamen desberdinetan "gigantes, tarasca, mascarones, caballitos y Dominguillo" azaltzen ziren. Erraldoiak eta taraska (dragoi mota bat) urtero prestatzen ziren eta bere dantza propioak izaten zituzten.



Garai bateko Corpus Christiko prozesio baten irudikapena.

1614an, Tuterako Corpuseko prozesioan, erraldoiekin batera, *aitacharca* edo *tarasca* batek parte hartu zuen. Aitaxarka (“aita gaiztoa”) edo deabrua, herensuge edo dragoi itxurako pertsonaia zen, eta behin festa bukatuta erre egiten zuten, kultura erlijiosoan gaitzak suntsitzea eta suaren bidez haiek garbitzea sinbolizatuz.

Hernaniko kasuan erraldoi eta beste irudiak ez dira agertzen baina tarteka ijitoen dantzak, mairuen dantza, edota Valentzia inguruko dantzarrien aipamenak azaltzen dira. 1660. urtean Donostian ohiko ezpata dantzariekin batera errege mairu eta bere emazteen erraldoiak atera ziren, eta haiekin batera San Cristobal irudikatzen zuen pertsonaia. Ohikoa zen halaber Corpuseko prozesioetan helburu pedagogikoekin Santuak eta Bibliako pertsonaiak ere azaltzea. Honen adibide gaur arte iraun duen Oñatiko Corpus festan azaltzen da, non ohiko dantzariekin batera San Miguel irudikatzen duen pertsonaia eta apostoluak agertzen dira.

Hernaniko Ostiral Santuko prozesioetan ere ohikoa zen San Miguel irudikatzen zuen pertsonaia eta aingeruak ateratzea. Azpimarratzekoa da San Miguel irudiak Euskal Herriarekin duen erlazioa, Aralarren bizi zen dragoia garaitu izanarekin lotzen baita.

XVIII. mendearen amaieran, Karlos III. erregeak Errege Agindu baten bidez debekatu egin zuen erraldoien eta buruhandien konpartsak izatea prozesio erlijiosoetan, ustez behar bezalako duintasuna gordetzeko.

Corpuseko prozesioek bi mundu ezberdin islatzen zituzten. Batek paganoa eta naturako izakien gurtza irudikatzen zuen, eta besteak kristau erlijioak, eukaristiaren gorespenean eta santuen zein beste erlijio-figura batzuen bidez mundu horren gaizkia eta bekatua garaitzen zituena.

Baina litekeena da, figura horien gurtza garai hori baino askoz lehenagokoa izatea. Elizak beste kultura batzuetatik hartu, sinbologia berri eta orduko prozesioetan txertatu izana.



*Hernaniko prozesio batean
San Miguel pertsonaia
1920. urte inguruan.*

Azken mendeetako erraldoi eta buruhandien konpartsak.

Mende batzuetan Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak Corpuseko jai erlijiosoeekin lotuta egon baziren ere, gertaturiko debeku horretatik aurrera eta XIX eta XX. mendeetan herrietako jaietan ateratzen hasi ziren.

Halere, Espainiako hiri askotan oraindik handiki ospatzen da Corpus eguna, eta prozesioarekin batera garai batean ateratzen ziren elementu eta figura askok parte hartzen dute. Valentzian, adibidez, elementu eta pertsonaia erlijiosoez gain, erraldoiak, buruhandiak, dantzariak, taraska, arranoa eta garai batean prozesioekin batera zihoazen beste elementu pagano batzuk ere ateratzen dira.

Katalunian eta Espainiako hainbat herrialdetan tradizio handia izan dute erraldoi eta buruhandien konpartsek. Euskal Herrian ezagunenak Nafarroakoak

dira, batez ere Iruñekoak, baina, egia esan, lurralde guztietan hedatuta daude. Erraldoiek komunitateen sinboloak, kondaira edo historiako pertsonaiak irudikatzen dituzte eta festaren parte dira.

Erraldoiek neurritz kanpoko altuera dute, noblezia efektua sortuz, eta buruhandiak dituzte aurretik, pertsonaia herrikoiak irudikatzen dituzten irudi groteskoak. Irudiak, oro har, harrizko kartoiz edo poliesterrez eginak daude, eta, oraintsuago, beira-zuntzez, egurrezko, aluminiozko edo burdinazko armazoietan itsatsita daude eta erraldoiaren arroparekin estaltzen dira.

Hernanin lehen Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa

Joan den mendeko gerra osteko industrializazioak ekarri zituen pizgarri ekonomikoak baliatuz ekimen ugari hasi ziren sartzen Hernaniko jai-programan. 1940ko hamarkadan gazteen koadrilak sortu ziren eta Sanjoanetan Azeri dantza, sokamuturra eta txarangen kale ekitaldiak arrakastaz hasi ziren ospatzen. Inguruko herri askotako jaietan erraldoi eta buruhandien konpartsak ateratzen hasi ziren. Urnietako kasuan, 1945. urtean San Migeletan lehen aldiz parte hartu zuten eta herri honetatik ekarri zituzten urte batzuk geroago Hernanin ibili ziren lehenengo erraldoi eta buruhandiak.

Hernaniko artxiboan jasotako datuen arabera, 1948. urtetik aurrera, erraldoiek eta buruhandiek San Joan jaietan parte hartu zuten. Lehenengo urte horretan, hilaren 23an, jaien hasieran atera ziren, eta Urumea

Musika Bandak eta Zumarragako trikitixak lagundu zieten.

Sortutako gastuen artean honako hauek zeuden: erraldoiak eta buruhandiak Urnietara kamioiz garraiatzea, Donostiako *Bazar X* izeneko dendan buruhandientzako 3 buru erostea, maskuriak, eta atsedendaldietan erraldoi eta buruhandiak zeramententzat eta bandako zein trikitixako kideei zerbitzatutako edariak.

Garai horretan, San Antonio paradorean ateratako argazki batean, trikitilariak eta erabilitako erraldoi eta buruhandiekin batera parte hartu zuten gazteak ikus daitezke. Hauen artean orduko Beti Ola eta Beti Gezur koadrilen bultzatzaile garrantzitsuak izan ziren batzuk agertzen dira.



1947. Erraldoi eta buruhandiak San Antonio Paradorrean.

Ezkerretik eskuinera: Eugenio Aizpurua, Miguel Garin, Joxe Sagarna "Kixkilu", Manolo Sanz, Imanol Leibar, Jose Luis Arruabarrena, Jose M^a Eceiza, Ramon Aldasoro, Juan Martin Lonbide, Anton Lizarralde, Julian Jaca, Luis M^a Garrido, Zumarragako trikitilariak, Carlos Ereña, Jose M^a Orradre eta Inazio Urteaga, besteren artean.

Lehen urte horietan, erabileragatik eta, segur aski, buruak egiteko erabilitako materialagatik, urtero buruhandientzako buru berriak erosten ziren. Udal ordenantzari, jaien aurretik, Urnietara figuren egoera ikuskatzera joateko eta, beharrezkoa izanez gero, berriak lortu eta horiek janzteko oihalak erosteko agintzen zitzaion.

1955. urtean erraldoi eta buruhandi berriak prestatu ziren. Kale Nagusian lokala zuen Orbegozo aroztegi eta ehorztetxeari eskatu zitzaion erraldoientzako bi armazoi egiteko, eta Donostian erraldoi eta buruhandientzako buru berriak erosi ziren. Garai honetan, udal langileak arduratzen ziren konpartsa mantentzeaz eta jai ekitaldia prestatzeaz. Maskuriak erosten zituzten eta gazte bila ibiltzen ziren erraldoi eta buruhandiak eramateko. Horren truke parte hartzen zutenei diru pixka bat ematen zitzaion.

Konpartsaren osaketa eta ibilera

Garai horretako konpartsaren konposizioa 2 erraldoi eta 4 buruhandiek osatzen zuten. Erreferentzia grafiko eta ahozkoak gutxi daude, baina Joxan Ruizek utzitako 1967ko bideo-grabazio batean, kasko erro-matarra duen agintari baten erraldoi bat eta txirikordatutako ile horia duen emakume erraldoia agertzen dira. Zuriz jantzita daude, tunika edo kapa urdin batekin agintariak eta gorria emakumeak. Buruhandiak aldiz, azeria, ile zuria zuen gizona, beltzaran bat eta buruan zapi gorria duen amona ageri dira.




Sanjoan jaien hasieran eta txupina bota ondoren konpartsa plazatik abiatu eta alde zaharreko kaletatik ibiltzen zen. Urte horietan guztietan horrela izan zen, baina urte batzuetan konpartsa Sanjoan egunean ere irten zen goizez. Lehen urtean trikitixa eta bandarekin atera baziren ere, beste urte guztietan txistulariekin ibili ohi ziren. Garai horretako ohitura bilakatu zen ere txistulariak "Triku-triku" doinuarekin lehen kalejira hori egitea. Doinu hori Isidro Ansorenak konposatu zuen eta "Nire herriko jaiak" bezala ere ezaguna da.

1950eko hamarkadan, erraldoi eta buruhandiek ere parte hartzen zuten Florida auzoko mendekoste jaietan. Festen hasieran irten ohi ziren eta Astigarragako txistulariek laguntzen zieten.

Asko izan ziren urte horietan konpartsan parte hartu zuten gazte anonimoak. Ohikoa ez zen arren, 1954. urtean parte hartu zutenen izen-abizenak eta haiek jasotako diru-saria irakurri ahal izan ditugu Udal Artxiboko agiri batean. Gaur egun denak hilda izan arren, haien oroimen hau omenaldi txiki bat izango da guztientzat.

Erraldoiak: Paulino Liceaga..... 8 pts
Agustin Incharburu..... 8 pts

Buruhandiak: Dionisio Telleria 4 pts
Jose Urquia 4 pts
Juan Manuel Armendariz... 4 pts
Domingo Izquierdo..... 4 pts



1960. hamarkadako hainbat buruhandi.



Erraldoiak 1963. urte inguruan Plaza Berrian.



Erraldoiak eta buruhandiak herriko txistulariak lagunduta Lizeaga auzoan.

Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa berriak

1980ko hamarkadaren hasieran erraldoi eta buruhandien konpartsa berritzeko beharra ikusi zen. Ordura arte erabiltzen zirenak zaharkituak zeuden eta herriko auzoetan erabiltzeko gorde ziren. Lizeaga auzoko Madalena jaietan 1984. urteko argazki batean erraldoi horiek ikus daitezke. Seguruenik, hauek izan ziren aurreko urteetan erabili ziren erromatar erregeen erraldoien ordezkioak.

Garai honetan, Satur Idarreta artista hernaniarrak lan garrantzitsua egin zuen erraldoi eta buruhandiak sortzen, mantentzen eta zaintzen. Udalaren enkarguz hainbat arte-adierazpenetan lan egiten zuten gazte batzuekin harremanetan jarri zen konpartsa berria egiteko.

Hauen artean Peio Villalba, J. Martin Burgueño, Josean Perez, Txema Calero eta Xabier Gaston zeuden. Bere lantegia Latsunbe auzoko Transpacar enpresa zaharraren instalazioetan kokatzen zegoen eta, paper eta poliesterra materialak landuz irudi berriak sortu zituzten. Erraldoien armazoa aluminiozkoa zen eta besoak mugitzeko sistema artikulatua zuen. Pertsonaiak jantzeko eta beraien jantziak egiteko Monika Garciaren ardurapean izan zen.

Erraldoiek Basajaun eta Mari pertsonaiak irudikatzen zituzten eta buruhandien irudien artean, akerra, moko luze zuen hegaztia, sudur potolo zuen burusoila, eta basurdea zeuden. Konpartsan parte hartzen zuen talde finkorik ez bazegoen ere, urte batzuetan Portu auzoko hainbat gazte erraldoiekin eta buruhandiekin ibili ziren. Garai hartan ere ohitura zen hainbat auzoko jaien hasieran erraldoi eta buruhandiak ateratzea.



Erraldoi eta buruhandi berriak egiten Transpacarreko instalazioetan.



Hernanin 1980. eta 1990. hamarkadan izandako hainbat buruhandi.



Erraldoiak inauterietan herriko txistulariak lagunduta 1980. hamarkadaren bukaeran.



Erraldoi eta buruhandiak 1990.eko hamarkadan.

Hamarkada horretan ere inauteriak berreskuratu ziren eta erraldoi eta buruhandiek protagonismoa hartu zuten jai egitarauan. Lehen urteetan konpartsa larunbat eta igandean ateratzen zen, baina urte batzuk geroago inauterietako larunbat eta astelehenean irteten hasi ziren. Sanjoanetan bezala, Hernaniko Txistulari Banda konpartsarekin batera herriko kaleetan zehar ibiltzen zen, baina, inauteri giroan murgiltzeko asmoz mozorrotuta ateratzen hasi ziren.

Gehiegizko erabilera horren ondorioz, berriz ere 1990eko hamarkadaren hasieran erraldoiak berritu beharrean zeuden. Udalak 1991. urtean erraldoi eta buruhandi berriak egiteko eskatu zion Satur Idarretari. Erraldoi berrien irudiek eguzkia eta ilargia irudikatzen zituzten eta buruhandien artean txinatarra eta pirata pertsonaiak zeuden. Neurri handiko buruak prestatu zituzten eta eramateko astunak zirenez askotan buruak eskutan zeramatela ibiltzen ziren. Garai honetan Sanjoanetako egun guztietan ateratzen ziren. Udal Txistulari Banda eta Musika Eskolako musikariak konpartsarekin batera herriko kaleetan zehar ibiltzen ziren.

Azken urteetako konpartsa

Aurreko mendearen amaieran, erraldoi eta buruhandien konpartsaren hondatze-egoera ikusita, beste batzuk egitea erabaki zen. 1997. urtean, Udaleko Kultura Batzordeak aurrekontua eskatu zien figura horiek sortzen zituzten lau enpresa edo lantegiri. Aurkeztutako proposamenetatik gustukoena Jonan Basterretxeak Irungo "Menina" artisautzako tailerraren izenean bidalitakoa izan zen. Aurkeztutako proiektuak Hernaniko historia eta kulturarekin zerikusia zuten irudiak biltzen zituen. Buruhandiak gaur egun ezagutzen ditugunak ziren, baina erraldoiek euskal emakumea, XVI mendeko buru zapiarekin eta Hernaniko burdinolekin lotutako olagizon bat irudikatzen zituzten.

Eskainitako erraldoien pisua 45 kgkoa zela kontuan hartuta eta ordura arte erabili zirenenekin alderatuta gehiegizko pisua zutela jo zen. Gehien baloratutako eskaintza izan arren, erosketa bi zatitan egitea erabaki zen. Aipatutako Menina lantegiari 6 buruhandi enkargatu zitzaizkion eta erraldoiak Irungo Xabier Garateren Txilipurdi izeneko lantegiari. Erraldoi hauek 30 kg pisatzen zuten eta aitona eta amona irudikatzen zituzten.

Erraldoi eta buruhandien konpartsa berrirako proposamenaren irudiak.



Buruhandi eta erraldoien irudiak

Lehen esan dugun bezala, artisau tailerrekoek bere proposamenean buruhandi berrien irudiak Hernaniko historiarekin lotu nahi izan zuten. Sei buruhandien artean batek **azeria** irudikatzen du, gaur egungo azeri dantzan parte hartzen duen pertsonaiekin erlazionatuta dagoena. Beste bat **oilarra** da, azeriarekin batera Erdi Aroan agertzen den animalia eta Iturriaga fabulari hernaniarra gogorarazten diguna. **Sorginaren** irudia aldiz, inguruko mendietan aurkitutako kobazulo eta aztarna megalitikoekin lotzen da. **Bufoia** Erdi Aroan biztanleria alaitzen zuten pertsonaiekin erlazionatzen da. Garai hartako Hernaniko bizimoduari eta herri eta etxe konfigurazioari lotzen zaiona. **Pirataren** irudia Donostia inguruko portuetara ailegatu baino lehen ontzien jabe egiten ziren pertsonaiekin erlazionatzen da. Hernani itsasotik gertu dago eta Urumearen portuen bidez aspalditik lotura izan du itsas jarduerekin.

Azkenik, **karlistaren** irudiak gerra karlistek Hernanin eragindako ondorioak gogorarazten dizkigu. Erraldoiak orde, XIX. mendeko janzkera duen bikote batek irudikatzen ditu: **aitona** bat makila eta piparekin, eta **amona** bat artilea modu zaharrean irutez. Buruhandiek 5 kg inguru pisatzen dute eta erraldoiek aldiz 4 m inguruko altuera dute eta 30 kilokoak dira. Estetikoki aberasten dituzten elementuekin margotuta eta apainduta daude. Pertsonaien jantziek buruaren eta buruhandiaren gorputzaren arteko karakterizazioari eusten diote egiazkotasun eta efektu handiagoa lortzeko. Poliesterezko erretxinaz eta beira-zuntzez eginda daude eta armazoiak aluminiozkoak dira, eramaileari egokituak eta orekatuak dantzarako.

Kriskitina taldearen ardurapean

Konpartsak erabilera egokia izan zezan eta haren funtzionamenduz eta antolaketaz arduratzeko herriko talde batekin harremanetan jartzeko aukera aztertu



Konpartsa jendez beteriko plazan Sanjoanetan herriko txistulariekin.

zen. Konpartsaren ardura dantza solteko hainbat ekimenetan parte hartzen zuen Kriskitina taldearen eskuetan utzi zuten. Konpartsa berriak 1998. urteko Sanjoanetan parte hartu zuen lehen aldiz eta taldea 16 eta 25 urte bitarteko 10 gaztek eta Luis Telleria eta Jose Angel Segura beteranoek osatzen zuten. Luis Telleriak hain zuzen, pertsonaiak dantzatzeko koreografia prestatu zuen. Erraldoi eta buruhandiek egiten duten dantza hau "Idiarena" doinuarekin dantzaten da. Honekin lotuta, aipagarria da doinu hau azeri dantzatan jotzen den melodietako bat dela eta Euskal Herrian buruhandi eta erraldoiak batera dantzatan aritzea toki gutxitan gertatzen dela.

Orain gutxi arte konpartsak egiten zuen ibilbidea honako hau izan zen. Plazan lehen dantza egin ondoren, konpartsa Andre kaletik abiatzen zen Plaza Berriraino. Atsedernaldi txiki baten ondoren, berriz dantzatu eta Zinkoenearaino jaitsi. Atsedernaldi berri baten ondoren, Kale Nagusitik Plaza Berriraino igo eta han berriro dantzaten zen. Azkenik, plazara itzuli eta azken aldiz dantzaten zuten. Hasieran Sanjoanetako bi egunetan ateratzen ziren 23an eta 25ean, baina azken urteetan hiru irteera egiten dituzte. Egun horiez gain, 26an ere

ateratzen dira. Oso gutxitan atera izan dira Hernanitik eta herriko beste jaietan ere parte hartzen dute. Inauterietan hiru egunetan ateratzen dira eta Euskal Jaietan beste behin.

Joan den mendeko 1990eko hamarkadaren amaieratik, ikastoletako ikasleek inauteriei hasiera ematen diote plazan eta ekitaldi horren ondoren erraldoi eta buruhandien konpartsa ateratzen da.

Azpmarratzekoa da inauterietako astelehenean, due-la urte askotatik hona, Konpartsarekin batera doazen musikariak dultzainaria, xirularru jole bat eta atabal bat direla. Garai honetan gehienetan herriko txistulari bandak laguntzen zion konpartsari, baina musika eskolako txistu eta dultzainako ikasleek ere parte hartu zuten.

Hogeita bi urtez, hasierako konpartsa hartan parte hartu zutenetako batzuek bertan parte hartzen jarraitu dute. Urte hauetan guztietan, Jose Angel Seguraren eta Luis Parrondoren lana azpmarratu behar da, taldearen erantzukizuna beren gain hartu baitzuten neurri handi batean.



Konpartsa taldeko arduradunekin eta Musika Eskolako musikariak inauterietan.

Herburu elkarte

2020. urtean Pandemiak festak bertan behera uztea ekarri zuen. Bi urteko etenaldi horretan, Kriskitina Taldeak Udalarari jakinarazi zion ez zuela konpartsarekin jarraitu behar. Udaleko arduradunak erraldoiekin esperientzia zuten Ostargi taldean ibilitako kide batzuekin harremanetan jarri ziren. 2013an sortu zen talde honek hainbat auzoko festetan zein Dantzari Festan parte hartu zuen erraldoiak eramaten.

Hainbat bilera egin ondoren, konpartsa berri bat sortzeko beharra ikusi zen. Konposizioan, jantzietan eta funtzionamenduan aldaketa batzuk egiteko aukera aztertu ondoren, egindako eskakizunak onartu eta konpartsa antolatzeari ekin zioten **HERBURU Elkarte**a sortuz. Elkarte berri honen bultzatzaileen artean Aitor Aiestaran eta Estebe Atorrasagasti hernaniarrak daude eta haien esanetan taldean adin desberdinetako 20 - 25 pertsona inguru mugitzen dira, tartean emakumezkoak direlarik. Elkartek bi erraldoi berri egin ditu, hauek Sanjoanetan egiten den akelarrearri loturiko **Adar** eta **Sorgina** pertsonaiak dira, herriko jaien izaeran oinarrituta daude-

nak eta gazteriaren isla direnak. Aurretik dauden bi erraldoiak bezala, hauek ere Irungo Garateren tailerlean eginak dira. Erraldoi berrien jantziak, ordea, Iruñerrian egindakoak dira, Fermin Teruelen lantegian.

Mimo handiz zaintzen dituzte erraldoiak, eta izen propioekin identifikatu ere egin dituzte. Amona, Mari Karmen da eta Andre kaleko Karmen Jaiei egiten dio erreferentzia, bertako jostun bat irudikatuz, eta emakumeen ordezkaria da konpartsan. Aitona aldiz, Joxe Mari da, baserritarra eta artzaina.

Buruhandiei aldiz, lehendik ezagutarazitako jatorrizko erreferentziaz gain talde honek bestelako esanahia eman diete. Pertsonaia batzuek erreferentzia mantentzen dute, baina beste batzuk, oilarra kasu, aldatzen dira. Oilarra baserritik datorren animalia da eta baserriaren ordezkaria bihurtu dute. Pirata ere garai bateko itsasontzien etorrerekin lotzen da eta Portu auzoaren ordezkaria da orain. Bufoia burgesiaren eta garaiko aristokraziaren irudia da, herriko jauregietan bizitako klase altuari keinu ginez.



Herburu elkarteko partaideak eta hainbat musikari.



Adar eta Sorgina erraldoi berriak.

Ibilbide eta dantzen aldaketa

Dinamika berri honetan, erraldoiek protagonismo handiagoa hartu dute. Buruhandiekin batera egiten duten koreografiari eusten zaio, baina hasieran eta amaieran bakarrik dantzatzen dute haiekin plazan. Ibilbidean zehar egiten dituzten geldiuinetan, erraldoiek koreografia berriak dantzatzen dituzte melodia berrien doinupean. Konpartsarekin batera txistulariak eta dultzainariak doaz erraldoien artean tartekaturik.

Hasieran ohiko ibilbidea egiten dute baina Plaza Berriatik Zinkoenera jaitsi ondoren, Kale Nagusitik igo beharrean, Izpizua kaletik gora doaz, Urbieta kaleko oinezkoen gunera sartuz. Handik, Nafar kalea gurutzatuz, eta hortik Kale Nagusitik plazan bukatzeko. Plazan amaitu eta erraldoiak udaletxeko sarrerarantz erretiratzen direnean melodia "alemaniar" deituriko doinuan, erraldoiek banan-banan dantzatzen dute beren dantza-dohainak erakutsiz.

Konpartsa handitzeak eta jende berria sartzekak entseguak egitea eskatzen du eta hauen maiztasuna emaldien arabera izaten da. Hasieran figurarik gabe entsaiatzen dute dantzak ikasteko, gero buruhandien maskarak jantzi eta erraldoien azpian sartzen da baikoitza. Erreferentziak desberdinak dira, erraldoiek oreka eskatzen dute, eta buruhandien maskarak enbarazu egiten baitu dantzarako.

Ekitaldiaren ezaugarriak

Hernanin, ekitaldiak gaur egun ospe eta babes handia duen arren, ez da beti horrela izan. Jai giroan oharkabean pasatzen zen ekitaldia izan zen urte askotan, eta belaunaldi askotarako erraldoi eta buruhandien oroitzapena jaien hasierarekin lotuta dago. Azken hamarkadetan ordea, konpartsa jaien hasieraz gain, hainbat egun eta festa desberdinetan ere arrakasta handiz ateratzen da eta ezinbesteko hitzordua da, batez ere, guraso eta familiako txikientzat eta gaztetxo askorentzat.



Erraldoiak dantzatzen Plaza Berrian inauterietan.

Ospakizunaren muina erraldoiek musikarien doinu-pean egiten dituzten dantzez gain, haurren eta haien atzetik ibiltzen diren buruhandien arteko harremanean datza. Haurrek tentatu egiten dituzte buruhandiak, eta hauek jarraitzen diete harrapatu arte, gero ume traketsenen edo korrika gutxiago egiten dutenen bizkar eta ipurdia berotzeko, trebeenak atarietan eta kale-tarteetan babesten diren bitartean.

Hernanin, beste herri batzuetan ez bezala, gehiago astintzen dela uste da. Erabiltzen den maskuri kopuru handiak zerikusia du elementu honek herrian duen jaien loturarekin. Axeri dantza herrikoian ere erabiltzen denez, txikitatik ezagutzen ditugu maskuriaren usaina, soinu eta kolpeak sortzen duen hazkura.

Haurrek ez dute hainbesteko beldurrik buruhandiek jotzeko eta azken hauek biziki saiatzen dira denen bizkarrak berotzen.

Betidanik haurren eta buruhandien arteko konplizitatea izan da, baina azken urteetan konpartsari aurrera segitzeko eragozten dioten barrerak egiteagatik edo entzuten diren kantuengatik ekitaldia aldatzeko arriskua dago.

Ahalegin handia egin da konpartsari bere jarduera arrakastatsua izateko behar dituen material eta giza baliabideak egokituz, eta espero dezagun egoera bideratzea eta erraldoi eta buruhandiek txistu eta dulzainen soinuaz animatuta, alaitasunez eta kolorez betetzen jarraitzea gure herriko kaleak.



Buruhandien atsedendian haur eta helduen arteko konplizitatea.

04.

GIPUZKOAKO ARMARRIA

IRAGANEAN, ORAINEAN ETA ETORKIZUNEAN

Beñi Agirre Oiartzabal
(Hernani Errotzen Memoria Historikoa)



“Gipuzkoako armarrria. Iraganean, orainean eta etorkizunean” jardunaldia

Hernani Errotzen Elkarteak eta Nabarralde Fundazioak Hernaniko Udalaren laguntzaz Gipuzkoako armarrria hartu zuten hizpide honako izenburu zuen jardunaldian: “Gipuzkoako armarrria. Iraganean, orainean eta etorkizunean”. Jardunaldia Biteri kultur etxe-ko areto nagusian egin zen, 2023ko azaroaren 25ean.

Historia ofizialak, sinbologiak eta kontakizunak duten harreman estuaz eta garrantziaz hitz egin zen. Sinbologiaren nondik norakoak azaltzeaz gain, zenbait tokitan betidanikoa omen den sinbologia ofiziala beraztertu zen. Kontakizun arrotzetik euskalnafarron kontakizunera ekartzeko izan diren ekimenen berri eman zen gero. Oñatin, Zizurkilen, Usurbilen, Auritzen, Bergaran, Antzuolan... eta beste zenbait tokitan egin denaz eta egiten ari denaz solasean jardun zuten bildutakoek.

Argi samar geratu zen armarrriak, banderak, ereserkiak, izenak eta gainerakoak ez direla apaingarri hutسالak; aitzitik, errelato baten erakusgarri direla, eta kontakizuna betiere oraina justifikatzeko dela; eta horretaz jabetuta, geroa diseinatzeko tresna baliagarria izaten dela. Eta hori da hernaniarroi lantzea dagokiguna. “Betidanik gureak” eta “normalak” omen diren sinboloek hausnartu eta gu ordezkatzeko ez gaituzten neurrian aldatzea eta egokiagoak diseinatzea.

Sinbologiaz

Espainiako diktadura erori eta gutako askok “Nafarroa Euskadi da” esaldi okerra oihukatzen genuen bitartean, Nafarroa Garaian gogor, setaz eta asmo gaiztoz ikurrina ez erakusteko legea ezarri zen. Euskadiko Autonomi Erkidegoan, berriz, Nafarroako armarrria EAEko armarritik eta errepidetatik ezabatzeko epaiak eman ziren. Iparraldean, ordea, biak ala biak ikus zitezkeen udal eta beste erakunde ofizialetako mastetan. Estatuak beretzat gordetzen dute sinbologia jakin bat bai, eta bestea ez, jartzeko eskumena. Epaila bidez derrigortzen dute haiek, guk geuk demokratikoki erakutsi nahi ditugun sinboloen gainetik.

Gaur egun ere, nazionalismo espainiarrak jazarpena eta isunak jarri ditu abian bere sinboloen erabilera inposatzeko, gureen gainetik, mendeetan zehar egundaino. Atarrabiako herriko frontoian “Euskal Herria” izena daraman armarrria kentzeko edo ezabatzeko agindua eman dute berriki. Bien bitartean, euskalnafarroko geure artean ika-mikan eta ezjakintasunean murgilduta ibili gara “betikoa” eta “normala” arrotzak inposatutako kontakizunak dioskuna aintzat hartuz; eta geure geurea delakoan, aldaketen kontra ere egiten dugu, tinko eta temati.

Zer da “normala” eta zer “betikoa”, ordea? Noizdaniakoa da betikotasun eta normaltasun hori, eta nork ezarritakoa? Hego Euskal Herriko hainbat udaletako bandera Borgoinako gurutzeta da, Nafarroa Garaia- ren konkistan tropa espainiarrek zeramaten bandera eta ultrasekuindarren kuttuna: Espainiako bandera zaharra. Eta hala ere, “betiko” bandera ei da, eta hori zalantzan jartzea tradizioak eta bazterrak nahasten hastea omen. Aldi berean, udal batzuetako plazetan ikurrina eta Nafarroako ikurra, biak ala biak jartzea zatiketa autonomiko espainiarraren gainetik, euskalnafar guztion batasunaren ezaugarri izan behar-ko litzatekeenean, kontrako jarrera aurkitu izan du abertzaleengan ere.


Ez da gauza bera, Ikurrina alde batetik eta Nafarroako bestetik astintzea, edo ikur biak elkarrekin haizatzea. Ez da gauza bera Gipuzkoako armarrri eta blasoietan Belateko kanoiak erakustea ala ezabatzea. Ez da gauza bera “Alfontso VIII.” izeneko edo “Reyes Católicos”, edo “López de Haro” kale eta plazak gure hirietan izatea; eta, aldiz, Eneko Aritza, Foru Plaza, Petri Nafarroako Mariskala, Martin Ttipia, edo Zugarramurdiko Sorginak (emaginak) izenekorik ez egotea.

Gipuzkoako armarrriak

Heraldikaren munduan, armarrria, kontaketa jakin baten euskarri fisikoa da. Armarrri batek hitz egiten du, zer- bait kontatzen digu beti. Eskuarki, armarrria edo blasoia diseinatzen duenak berak kontatzen ditu bere herrial-

dearen edo leinuaren “lorpenak” edota subjektuaren balentriak, munduak izan dezan bere herriari edo berari buruzko irudirik positiboena. Eskuarki diogu, ez beti. Arerioak edo etsaiak bestearentzat egindako diseinua bada ezin da espero “menpeko beste horren” loraldiak eta edergarriak kontatzea. Ohikoena da kasu horietan irudi gutxiesgarriz eta iraingarriz hornitzea kontaketa. Hori da, Espainiako Inperioak Gipuzkoari emandako armariaren kasua. Euren lorpenak kontatzen dituzte: Gaztelako koroa, kanoi eta erdarakadez osatua.

Armarriak harrian zizelkatuak ala horman edo oihalean margotuak izaten dira. Ugariak Erdi Arokoak dira, jauntxo, handiki edo elizaren gorespenerako egindakoak. Hala eta guztiz ere, badira irudi eta sinbolo zaharagoak erabiltzen dituztenak; adibidez, zortzi erpineko izar eta ilargi ilbeherako sasoian irudikatzen dutenak. Horiek gurean, aitzitik, ez dira islamaren jatorrizko sinesteetatik eratorriak, baizik eta baskoien antzinako sinbologia mitologikoen bidez transmitituak.



Lauburu



Lazkaoko armariaren atal bat.

Armarrien jatorrizko deskribapena eta esanahia idatzirik ez badago, figurak soilik baldin badaude, interpretazioaren munduan sartzen gara. Hori da Gipuzkoako armariaren irudi batzuen kasua, figura berriak eransten zitzaizkion denboraren poderioz; beraz, Gipuzkoako armarrria ez da beti bera eta berdina izan. Bistan denez, armari horrek berak aldakuntza garrantzitsuak izan ditu historian zehar, gertaera historiko eta politikoei lotuta gehienetan. Horregatik, zuzena da, Gipuzkoako armarrriez, pluralean, hitz egitea.

Hortaz, Gipuzkoako armariak lurraldearen historia politikoari lotua daude. Beren lorpen eta balentriaz gain, jabe-g historia bat kontatzen digu; eskuarki,


irabazlearen edo diseinua egiten zuenaren historia kontatzeko irudikatua izan da. Armarrrian egin izan diren aldaketek irudi berria ezarri duenaren interpretazioa erakusten digu.

Historiaz: Nafar itsas-mendebalde hurbilaren konkista (oraingo Araba, Gipuzkoa eta Durangaldea)

XII. mendean, Nafarroako Antso VI.aren garaian, Europako beste lurraldeetan gertatzen zen bezala, azkartu egin zen nafar erreinu osoan hiribilduei hiri-gutunak ematea eta haiek gotortzea: 1180an Donostiari, 1181ean Trebiñu eta Gasteizi... Bazirudien, erregeak Gaztelarekiko muga eta itsasaldeko hiriak indartu nahi zituela balizko eraso baten aurrean. Aro horietan ere ohiko zen erresumen arteko aliantza estrategikoak egitea: Antso VI.a Nafarrokoaren alaba Berengela eta Rikardo Lehoibihotza ezkondu zituzten 1191ko maiatzaren 12an, Zipren. Rikardo, Akitaniako Leonor eta Ingalaterrako errege Enrike II.a Plantageneten oinordeko zen. Ingalaterran, Lege Salikoa edo “falikoa” indarrean izango ez bazen, Berengela Nafarroakoa alargundu zenean izango zen Ingalaterrako erregina.

Gaztelako Alfontso VIII.a eta Aragoiko Pedro II.ak, ordea, ez ziren lo geratu. Nafar erresuma euren artean banatzeko hitzarmena sinatu zuten Calatayuden, 1198ko maiatzaren 20an. Zorigaitzez, urtebete beranduago, 1199ko apirilean, jada Antso VII. Azkarra Nafarroako errege eta Rikardo Lehoibihotza Ingalaterrako errege eta Akitaniako duke ezkonanaia edo koinatuak zirela, Rikardo hil egin zuten Limousingo Chaluseko gazteluan gezi batek jota.

Antso VII.ak aliatu indartsuena baldin, Nafarroaren itsas mendebalde hurbila (oraingo Araba, Gipuzkoa eta Durangaldea) erasoan konkistatu zuen Gaztelak. Alfontso VIII.ak Gasteiz hiribilduari bederatzita hilabete setio jarri ondoren errenditu eta itsasalderaino sartu zen, Baionaraino. Nafar itsasaldeko errege gaztelar berriak Durangoko gobernantza eman zion Haroko Diego Lopez II.a “Gaiztoari”; horrek Alfontso-ri berari Jaéngo Navas de Tolosako batailan, 1212an,



Gaztelako Alfontso VIII.a eta Aragoiko Pedro II.ak sinatutako Nafarroaren banaketa.

musulmanen kontra emandako laguntzaren ordainean. Diego Lopezek Durangaldea Bizkaiari lotu zionean Gaztelapeko basailutza zuzena ezartzea ekarri zuen Nafarroari ebatsitako lurralde horrentzat.

Nafar tenentziak oraingo Gipuzkoan

Ez dago esaterik, mitologiaren ikuspegitik ez bada, oraingo Gipuzkoaren bailarek erromatarrek izendatutako Barduliako lurraldearekin bere osotasunean bat egiten dutenik. Oiasso portu-herri edo erroma-herria Baskoniako eremua bezala hartzen baitzuten, ustez, Jaizkibel edo Oiartzun ibai inguruetaraino. Mendebaldean, Deba-Mutriku Caristia erromatarrean sartuko

litzateke. Oiartzun-Deba arteko lur mehe hori, berriz, Aizkorriren gainerik pasa eta Trebiñuraino sartuko litzateke bertikalean; hortaz, gaurko Arabako lur mehe horiek ere Bardulia izango lirateke; hori, apenas aipatzen edo aldarrikatzen badute ere.

Joxe Miel Barandiaran zenak eta Aranzadi Zientzia Elkarrekin duela 14.000 urteko ehiztari eta biltzaileen aztarnak aurkitu dituzte han eta hemen; Debako Ekain koban Madeleine aldiko gizakiek egindako labar pinturak aurkitu dira, zaldien 34 margo koloredun. Beraz, erromatarrek Euskal lurraldera iritsi zirenean, dagoeneko, euskal habitata populatua zegoen. Gainera kultur eta artearen garapen oso aurreratua zuten auzoko beste kulturekiko.

Ikusi besterik ez dago, godoen garaian, Garona ibaia-
ren hego isuritik Ebro bi isurietan Soriako mendieta-
raino Baskonia eta baskoiak soilik aipatzen direla.
Hortaz, Bardulia erromatarren izendapena haien
kontu bat besterik ez zen izan. Godo, Franko eta
kalifa-herriak menderatu ondoren sortutako nafar
erresumaren kasuan ere baskoien erresuma bezala
ezagutzen zen. Ez zen probintziarik existitzen, ez ze-
goen Gipuzkoarik, erresuma bailaraka gobernatzen
baitzen. XII. mendean, Gaztelako tropak Gasteizen
sartu aurretik, bailarak markatzen zituzten nafar erre-
sumako administrazio barrutien banaketa: tenentziak.
Gero, Gaztelak osatuko zuen Gipuzkoa, hiru tenentzia
nagusiak batuz:

- **Aitzorrotz.** Debagoieneko eta Debabarreneko ibai isuriak; ekialdera, Gatzagatik Lastur-Deba herriraino, eta mendebaldera, oraingo Durangaldea barne; nahiz eta, batzuetan, tenentzia propio bezala ere azaltzen den.
- **Ipuzkoa.** 1025ean, San Salvador de Olazabal (*monasterium quo dicitur ollazabal*) San Joan de la Peñako nafar monasterioari Ipuzkoako jaun-andreak (*senior Garsia Acenariz de Ipuscua* y su esposa *Gayla* o *Gaila*) egiten duten dohaintza dokumentu batean agertzen da. "*Aralarretik Elkanora*", Getariaraino, Oria eta Urola ibaien arroko agindupeko lurrak deskribatzen ditu, Lasturrekoak barne.
- **Hernani.** Ezagutzen diren lehen dokumentuetan (1014 eta 1101) Hernani Iruñeko erresuma baskoiaren barruan zegoen eta egungo Donostiaren Antigua auzoan zegoen San Sebastian izeneko eliza Leireko monasterioari egindako donazioari aipamena egiten zion: "*... eman eta eskaintzen diegu Jaungoiko berari eta jada aipatutako santuei eta Leireko monasterioari..., Ernani mugetan, itsasoaren ondoan, San Sebastian esaten zaion monasterioa eta bere lurraldea...*".

Gipuzkoa. Gaztelarraren eremuak.

Koka gaitetzen berriro 1200eko konkistaren egoeran. Gasteiz errendituta eta garaiko Antso VII.a Azkarrak Rikardo Lehoibhotza aliatua galduta, Alfontso VIII.a Gaztelakoa itsasaldeko lurraldeak konkistatzera eta bere erara antolatuz sartu zen. Donostiari Antso VI.ak emandako hiri-forua berretsi egin zion 1203an eta aldi berean, Donostiatik bereizteko bere hiri-foru partikularra jaso zuen Hondarribiak; Getaria eta Murtiku birrindu ondoren "berreraiki" eta Donostiako Forua zabaldu zion, 1209an. Horrela, baskoien hiriburuari itsasorako irteera itsutu egin zion. Hortxe sortu zen, denak nafarrak ziren herrian, batzuk basco edo bascongadoak eta besteak nafarrak deitzea. Garibairen esanetan: Alfontso gaztelarrak lehenengo "Kantauri ozeanoan gailendu edo nagusitu nahi baitzuen".

Gaztelarrek 1200eko konkistatik ehun eta hogeita hamabi urte behar izan zituzten Arabako elitearekin Lurraldearen Foruak hitzartzeko, 1332 arte; Oraingo Gipuzkoarekin 1397 arte, Getarian, Moro Gaztelako gobernadorea tarteko Gipuzkoako Koadernoak idazteko; Bizkaian, berriz, 1452 arte, Fernando II. Aragoiko "Faltsarioak" Bizkaiko Lurralde Foruak zin egiteko Gernikan. Urte horietan guztietan Gaztelako erresumaren menderakuntza sarea josten eta indartzen ari ziren. Nafarroa Garaia eta Beherea erresuma independentea izaten jarraitu bazuen ere, ahultzen zihon etsaien aurrean. Hori dena da, armarrietan irudikatuz, kenduz eta jarriz, kontatu izan digutena.

Gaztelak lurralde bakoitzarekin hitzartutako Foru horietatik sortu ziren lurraldeetako Batzar Nagusiak eta testuinguru horretan diseinatu zen Gipuzkoarako jatorrizko zigilua, gero armarrira eramango zena. Deskribapen gisa ezagutzen den lehenengoa, hau izan zen: "goiko arloan errege jantziarekin azaltzen den pertsona bat agertzen da aulkian eserita, koroa du buruan eta ezpata biluzia eskuineko eskuan zutik jasota; beheko arloan hiru zuhaitz berde, itsasoa irudikatzen duen uhinen gainean, denak eremu gorrian". Bertan, ez dago ez Barduliari buruzko aipamenik, ezta ere inori leial izateari buruzko xingolarik.



Lehen zigilua izan zitekeena (argazkien iturria: M^a Rosa Ayerbe).

Hiru zuhaitz haiek noiz eta nork jarri zituen zigiluan eta zein zuhaitz motakoak ziren ere ez dago ziurta- tzerik, ez da esaten; baina, Gipuzkoako Ermandadeen Batzar Nagusiak jatorrizko zigilua diseinatzeko hasie- ratik erabili zirela bai. Behar bada, eta beste hipotesi bat botatzearren, erakundetze edo lurraldea tenen- tzien bidezko antolaketaren nafar tradizioa irudikatu nahi zutela pentsa daiteke.

Edonola ere, jatorritik gaur egun arte etengabe eta zigilu guztietan azaltzen diren irudi bakarrak, Jose An- tonio Agirreren Jaurlearitzak erregearen irudia kendu ondoren, Batzar Nagusiak jarritako hiru zuhaitz eta itsas uhinak dira, gaur egungo armari sinplifikatu edo logotipo ofizialean horiek soilik irudikatzen direnak. Luze joko lukeen aldaketa guztien azterketa eta kon- takizunak dokumentatuta dauden beste lan batzuetar-ako utzita, heldu diezaiozun orainari eta etorkizunari.

Espainiako Inperioaren armaria Gipuzkoarako

Argitu dugu 1200. urtean Gaztelako Erresumak gaur egun Gipuzkoako herrialdea osatzen duten lurraldeak konkistatu zituela. Hernani, ordura arte, Nafarroako Erresumaren parte zen, nafarrak ginen; baina, konkis- ta haren ondorioz muga berriak ezarriz senide arteko banaketa eragin zuten: baskongadoak eta nafarrak.

Gaztelako Erresuma Inperio bihurtzen hasi zen *Non Terrae Plus Ultra* (ez dago lurrik Finisterretik harago) latinezko esaera atzera utzi zuenean. 1482an, Grana- dako nazarien Erresuma suntsitu ondoren, 1492an,

Kolonen eskifaiako batek Guanahani uhartea bista- ratu zuenean Ameriketarako bideak ireki ziren, XVI. mendean. Europako bidelapur guztiak etortzen hasi ziren Gaztelako Gortera kolonia berrien arpilaketara- ko txanda eske. Espainia era guztietako mertzenarioz bete zen.

Hogeita hamar urte beranduago, Aragoi-Gaztelako tropek elkar hartuta Nafarroa Garaia inbaditu zuten, 1512an. Gipuzkoarrek, arabarrek eta bizkaitarrek Gaz- telako basailu ziren neurrian parte zuzena hartu zuten etxekoen kaltetan. "Balentria" hori saritzeko ala iseka egiteko, nork daki, 1513an, Gaztelako Juana erreginak hamabi kanoien irudia "oparitu" zien gipuzkoarrei eu- ren armarrarian leku nabarmenean jartzeko. Belateko kanoiak.

Kanoien mitoaren jatorria Gaztelak Nafarroaren kon- tra jokaturako gerraren pasarte bat du oinarri, juxtu, gipuzkoar elite batzuen osteak Nafarroa berreskura- tzeke kontraerasoan porrot egin, eta Belaten barre- na erretiratzen ari zirela. Honela aurkeztu zuen Jose Antonio Zabala biltzarkide jaunak Gipuzkoako Batzar Nagusiaren aurrean armari zaharretik irudi gaitzes- garri batzuk kentzeko saioan, Aktan jasota bezala:

Gipuzkoako Batzar Nagusiak.**II. Legealdia.****Bilkura egunkariaren: 21 zenbakia****Osoko Bilkura.****1985-11-25**

"... Joan Albret eta Katalin Foixko Nafarroako erre-erregina legitimoek, Pirinioak zeharkatu behar izan zituzten, Bortuz Gorako Seigarren Merindadean babesteko; alegia, Nafarroan, Nafarroa Kontinentalean; errege legitimoari jarraitzen dien nafar agramondarrekin batera eta Frantziako erregearen tropen laguntzari esker; batez ere, Alemaniako erreinuko mertzenarioek osatua; Erresuma berreskuratzen saiatuko dira. Zoritxarrez, talka gehienetan zortea kontrakoa dute, eta mila eta bostehun eta hamabiko abenduaren lauan, Nafarroako Erregearen tropa leialak, Lansqueneteak gehienak, Baztan ibarrean zehar Behenafarroara erretiratzen ari zirenean, Belateko mendatera iristean, eraso egin zieten Gipuzkoako tropek, Bidaurre eta Berastegi jaunak buru zirela..."

... Honaino, laburpen historikoa, eta amaitzeko, hainbat ondorio atera ditzakegu: Fernando V.aren inbasioa Nafarroako subiranotasunaren aurkako erasoia izan zela, 'fultomania' delakoaren bidez; prozedura hori, hain zuzen, erregeak beste lurraldeak okupatzeko aholkatzen zuten..."

Espainiako Inperioak Gipuzkoako armarrarian ezarritako hainbat atal kentzea

Espainiako II. Errepublikara garaiko Euzko Jaurlaritzak, 1931an, agindu zuen, besteak beste, erregearen irudia eta Belateko kanoiak desagerraraztea; gero, Errepublika bota zuen frankismo espainiarraren garaian berrezarri bazuten ere.

Hona hemen, Espainiako diktadura frankistaren ondoren berrezarritako Gipuzkoako Batzar Nagusien aurreko akta beretik jasotako pasarte batzuk:

Fernando V.aren (Aragoikoa, Faltsarioa) inbasioa, Nafarroako subiranotasunaren aurkako erasoia izan zen. Kontuan hartuta (Gipuzkoako jendea) enbor beretik eratorritako senideak garelara, Nafarroaren inbasioa euskal nafarren subiranotasunaren aurkako da, eta, beraz, guztiz justifikatuta dago senide-hilketa gogorarazten dituzten sinboloak ezabatzea (Belateko kanoiak). Armariaren aldaketak kalte aitortza eta bidegabekeria egindako ekintza baten ordaina izan behar du, ezin baitugu gure historiaren ekintza loria-tzaile gisa onartu gaitzesgarria dena.

"... Batzar Nagusi hauen ekimenez egindako Gipuzkoako armariaren aldaketa prozesua oso luzea izan da... Arrasaten, 1979ko apirilaren 22an egindako Batzar Nagusietan hasi zen... 1876ko uztailaren 21eko "Foru Deuseztatze Legeak" eten arren, "Tradizioa" jarraitzen zuela irudikatuz eta haien lekukoa jasoz.




Mozio horretan..., Canovas del Castillo gobernu-buru espainiarrak 1876ko uztailaren 21an Foru Deuseztatze Legeak eten zuena berrezartzeaz gainera, ... hiru proposamen egiten ziren: hamabi kanoiak kentzea, Euzko Jaurlaritzak 1936ko Estatu-tuan ezarritako armaria onartzea eta senidetasun mezu bat bidaltzea Nafarroako Foru Parlamentura...



... Uztailaren 2an, Oartzunen egin zen Batzar Nagusien bileran, guztien adostasunez onartu zen aipatutako mozioa..." (Eusko Alderdi Jeltzailea, 30; Euskadiko Alderdi Sozialista - PSOE 9; Euskadiko Ezkerra, 9; Coordinadora Independiente, 3).

Aipatu behar da ere Batzar honetara bertaratu ez ziren diputatuak: Eusko Alderdi Jeltzaitetik hiru; Euskadiko Alderdi Sozialistatik hiru; Euskadiko Ezkerretik, bi; Herri Batasuneko, hemeretzi; Centro Democratikotik hiru, Coordinadora Independentetik bat; eta bertaratu, baina Batzarrera utzi, Alianza Populareko, bat.

Amaitzeko esan, **armarriak, banderak, kale izendegiak eta oro har sinbolo guztiak aldatzen doazela. Heraldikaren munduan, armarrria, kontaketa jakin baten euskarri fisikoa da, baina, historian zehar gertaera historiko eta politikoei, Instituzio eta lurraldearen kontrolari oso lotuta daude. Egin ditzagun gaur gu ordezkaturko gaituen beharrezko aldaketak eta bultzatuz dezagun ondoko generazioen ere gauza bera egin dezaten hala dagokienean.**



GIPUZKOAKO BATZAR NagusiaK II LEGALDIA BILKURA EGUNKARIA: 21 ZENBAKIA OSOKO BILKURAK 1985-11-25	JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA LEGISLATURA II DIARIO DE SESIONES: NUMERO 21 SESIONES PLENARIAS 25-11-1985
---	---

- 14 -

"Visto que en reunión de Junta General u Ordinaria celebrada en Oyarzun el 3 de Julio de 1979 se aprobó una propuesta relacionada con el Escudo de Guipúzcoa, presentada en la sesión constitutiva celebrada en Mondragón el día 22 de abril de dicho año sobre eliminación de los cañones que figuran en la parte izquierda del Escudo de Guipúzcoa del siguiente tenor literal que se vuelve a adoptar el Escudo acordado por el Gobierno Vasco nacido del Estatuto de 1978. Propuesta aprobada que fue sometida a Diputación a fin de seguir las oportunas actuaciones y expedientes.

Visto que el Pleno de Diputación en sesión de 25 de abril de 1983 adoptó acuerdo del siguiente tenor: "Acuerdo del Pleno de las Juntas Generales de Guipúzcoa de 3 de Julio de 1979 a cuando se dispone en los estatutos vigentes del presente.- Incorporar al expediente la descripción heraldica resultante de la modificación del Escudo y el nuevo diseño del mismo.- Se dictarán las normas adecuadas para la sustitución del Escudo y las Disposiciones Transitorias según lo establecido con carácter orientador, criterios heraldicos con los de la Ley 33/81 de 5 de octubre y Real Decreto 2564/81 de 18 de diciembre".

"Visto que el Consejo de Diputados en reunión de 11 de junio de mil novecientos ochenta y cinco ACUERDO: Primero.- La descripción resultante de la modificación del Escudo de Guipúzcoa según el Acuerdo de las Juntas Generales adoptado en sesión de Junta General u Ordinaria celebrada en Oyarzun el día 3 de Julio de 1979, es la siguiente: "Escudo de un solo cuartel que tiene sobre campo de oro tres árboles cejas verdes, uno en medio y los dos a los lados en igual proporción, al pie de estos árboles ondas de agua de plata azul y anulado este escudo con dos salvas que le apoyan siendo uno por cada lado, y debajo la leyenda "ERRESISTENZA VASCOIA NUKOIAN ZUBERATZA". Segundo.- El nuevo diseño del Escudo de Guipúzcoa conforme al precedente anterior de este acuerdo es el que figura como anexo al mismo.- Tercero.- La sustitución del Escudo de Guipúzcoa se efectuará de acuerdo con las siguientes normas: 1.- En la bandera de Guipúzcoa se procederá de modo inmediato a adoptar las medidas necesarias para la sustitución de su Escudo por el Oficial, excepto cuando se trate de ondas de valor histórico que deben ser guardadas y exhibidas con tal carácter.- 2.- De igual modo se procederá con las placas, sellos, en seda y de lino, billetes, diplomas, distintivos, documentos, impresos, sellos y membretes de uso oficial, que tengan el escudo de Guipúzcoa: la sustitución habrá de quedar completada en el plazo máximo de seis meses, excepto cuando por el volumen de los impresos y afectos no utilizados o por otra causa justificada fuese excepcionalmente aconsejable un plazo mayor.- 3.- En los edificios públicos y objetos de uso oficial en que pueda figurar el Escudo de Guipúzcoa se procederá a la sustitución en el plazo máximo de tres años.- Se mantendrán los edificios existentes en aquellos edificios declarados Monumento Histórico-Artístico, igualmente se mantendrán en aquellos monumentos, edificios o construcciones de alta ornamentación formero de alta sustancial o cuya estructura pudiera quedar dañada al separar los escudos.- 4.- Conforme al mismo orden del acuerdo del Pleno de esta Excmo. Diputación Provincial de

GIPUZKOAKO BATZAR NagusiaK II LEGALDIA BILKURA EGUNKARIA: 21 ZENBAKIA OSOKO BILKURAK 1985-11-25	JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA LEGISLATURA II DIARIO DE SESIONES: NUMERO 21 SESIONES PLENARIAS 25-11-1985
---	---

- 15 -

25 de abril de 1981, somátese el expediente, a través de las Juntas Generales de Guipúzcoa a resolución del Gobierno Vasco".

Visto que trasladado el citado acuerdo a la Comisión Institucional de estas Juntas Generales dicha Comisión presta su conformidad al mismo, con la discrepancia manifestada por el Sr. Clevero, de Coalición Popular y lo eleva a esta Comisión Permanente.

La Comisión Permanente de estas Juntas Generales aprueba el elevar a la primera reunión ordinaria que celebre el Pleno de las Juntas Generales de Guipúzcoa, el precitado acuerdo, para ser sometido a aprobación, y en su caso, remisión a efectos de resolución por el Gobierno Vasco.

Sr. Presidente: Se va a proceder por tanto, a la votación de aprobación de esta propuesta y por tanto también remisión al Gobierno Vasco para su resolución en su caso.

Tiene la palabra el Secretario Sr. Ensal.

Sr. Ensal: Votación:

Votan a favor: Unanidad.

Sr. Presidente: Se aprueba por tanto, por unanimidad de los presentes el punto anteriormente tratado.

05. HERNANI BURUJABE



Mikel Valero Alzaga
HIRITIK AT Lurraldegintzarako koordinatu berriak





Asko dira jendarte bezala ditugun erronkak: trantsizio energetikoa, erregai fosilen akabera, krisi ekologikoa, pobrezia eta bazterketa soziala desagerraraztea, zaintza sistema duin bat eraikitzea, sistema publikoa indartzea, demokrazian sakontzea etab.

Herri bezala **Hernanik badu esperientzia, borondatea eta potentziala erronka hauei guztiei erantzuteko**. Konplexuak diren erronka horietako askori maila lokaletik erantzunak eman eta eredu sozial berri, bizigarri eta jasangarri bat erdituko duten esperientzia publiko-herritarrek abiarazteko.

Horixe da hain zuzen Hernani Burujabe: erronka globalei tokiko mailatik erantzun ahal izateko abiatzen den trantsizio prozesua. Herri gisa burujabetza kota handiagoak dituen egoera bateranzko trantsizioa; justizia sozial eta ekologikoa ardatz edukiko dituen trantsizioa alegia.


“Zer” bat baino gehiago “nola” bat da Hernani Burujabe: herri egitasmo ekonomiko zabalaren, planifikazio demokratikoaren eta udal sustenguaren elkar-erantzaren bidez eraiki nahi den prozesua, eraiki nahi den herria. Egiteko forma berri bat, denon artean eta inor atzean utzi gabe ibiltzen hasteko bide-orri bat.

Horrenbestez, eredu horrek herrien auto-eraketa sozial, ekonomiko, kultural, politiko eta territoriala hauspotzen du, eta, herri mailako eskalan burujabetza materialki gauzatzeko aukera irekitzen digu.

Menpekotasunetik burujabetzara

Epe ertain-luzerako erronkak agendan zehaztera pasatzeko unea da. Tokiko potentziala aintzat hartu, udal politika eraginkorrek egin eta lurraldeko agenteen agenda, gaitasun eta proiektuak aktibatzeke ordua da.

Horrela, herri-estrategia bat definitzen eta gauzatzen hasiak gara. Gaur-gaurkoz 7 burujabetza sektore identifikatu ditugu eta horietan guztietan proiektuak martxan ditugu. Edonola ere prozesu ireki bat da eta helburua da ahalik eta sektore gehienak eredu honen baitan garatzea eta lurralde burujabetzan sakontzea.



Sektorez sektore, burujabeago

Urte beteko barne lanketaren ostean, 2021ko urriaren 1an Hernani Burujabe publikoki aurkeztu zen. Ordurako, sektore estrategikoetako hainbat proiektu martxan jartzen hasi ziren, udalak burujabetzarako apustua egina zuen eta herritarrak antolatzen hasiak ziren ere.

Sektorez sektore, plan estrategikoak garatu ziren, mahai publiko-ekonomiko-herritarrak sortu ziren eta proiektuak garatzen hasi ziren.

Arnas luzeko egitasmoa bada ere, hiru urteko ibilbidearen ostean, hainbat dira martxan jarritako egitasmoak eta lortutako emaitzak sektorez sektore:

SEKTOREA	ERAGILEAK	PROIEKTUAK
Elikadura	Herrilur [kontsumo elkarteak] HENASE [ekoizleen elkarteak] Bertatik elikatuz [inserzio sozio-laboralerako enpresa]	Bertako eta produktu ekologikoaren denda
		Nekazal eskola
		Nekazari berrientzako praktikaldiak
		Transformazio zentroa
Energia	ENHERKOM (komunitate energetikoa)	Auto-kontsumorako instalazioak Energia bulegoa
Zaintza	Maitelan [zaintzaileen kooperatiba] Zabalduz [Irabazi asmorik gabeko inserziorako kooperatiba] Zaintza talde herritarrek	Auzo-zaintza Zaintza jardunaldiak
Telekomunikazioak	EHkom [operadore neutro publiko-komunitarioa]	Landa lurretan internet konexioa Alde zaharrea zuntz optikoaren zabalpena
Bioaniztasuna	Sagarreta [bioaniztasunerako elkarteak]	Baso lurren publikazioa Hazitegia Sentsibilizazio ekimenak
Etxebizitza	Etxebizitza taldea	Formakuntza eta sentsibilizazio ekimenak
Ekhi [tokiko moneta]	Ekhilur [tokiko monetaren kudeaketarako kooperatiba]	Tokiko merkataritza ezarpena eta hobari kanpainak

Hernani Burujaberaren inpaktu datuetan

Proiektu horiek jada hasi dira jada inpaktu erreal bat suposatzen hernaniarren bizitzetan. Jarraian, hori frogatzen duten zenbait datu ikusi ditzakegu:

- Hernani Burujaberaren baitan sortutako ekimenetan 20 lan postu sortu dira. Horietatik 11 inserzio sozio-laboraleko lan postuak dira eta 3 pertsona "erregulartzatuz dira".
- 1,8 M euro baino gehiago mobilizatu dira burujabetzen sakontzean, diru iturri desberdinetatik.
- 400 pertsona inguru inplikatu dira Hernani Burujabeko egitasmoen baitan, aktiboki parte hartuz edota eragile desberdinetako bazkideak eginez.
- 2000 pertsona inguru artatu eta zerbitzuak jaso dituzte Hernani Burujaberaren baitan sortutako energia bulegoa, auzo-zaintza edo Ekhi monetaren baitan.

Planifikazio publiko-herritarra

2024an erronka berri bati ekiten zaio. Orain arte, Hernani Burujabeko egitasmoetan baitan inplikatutak daudenak izan dira erabakiak hartu dituztenak. Koordinazio bat badago ere, sektore bakoitzak nahiko bide autonomoa egiten du. Heldu da garaia, ordea, Hernani Burujabe herritartu, lurraldetu eta zehar lerro bezala identifikatutako hainbat gairi (feminismoa, euskara, hezkuntza...) heltzeko. Horretarako, Burujabetzen Kontseilua sortzen da eta planifikazio prozesu publiko-herritarra abiatzen da.

Horrela bada, Hernani Burujabeko eragile eta erakunde guztien arteko kohesioa eta gidaritzaren behar du. Udalaren, sektoreetako eragileen eta herritar taldearen ordezkariz osatuta egongo da, eta, planifikazio prozesuaren gidaritzaren esku egongo da. Marku honen baitan abiatzen den planifikazio prozesua Hernaniko auzoetara, elkarrengana eta herritarrengana jeitsiko da, dituzten beharrak jaso

eta Hernani Burujabek proposatzen dituen egitasmoak horietara egokitzeko asmoz: ekonomiaren planifikazioa herritik eta lurraldetik egiteko anbizioa dago.

Hernani Burujabek, bada, 20.000 hernaniarren eguneroko bizitzan eragiteko bokazioa du: elikadura, energia, zaintza edota etxebizitza beharrak modu justu, iraunkor eta berdinzale batean asetzeko.

Eta Euskal Herria Burujabe?

Baina Hernani Burujabek ez du herri mailan soilik eragiteko bokazioa; ez du soilik maila lokalean burujabetzan oinarritutako sistema propio bat eraikitzeke helburua. Hernani Burujabek nazio mailan eragiteko bokazioa du. Hernani Burujabek Euskal Herria Burujaberen eraikuntzan egiteko nahia ere bada.

Horregatik, ezinbestekoa da Euskal Herri Burujabe bat eraikitzeke bidean eskala ezberdinetan lan egitea: herri, eskualde, hiri, herrialde zein nazio eskalan, alegia. Horretarako, Burujabetzak artikulatzeko, estrategia multieskalarrak garatu beharko ditugu tokian toki, eskalaz eskala, sektorez sektore, errealitate ezberdinetara egokitzeko.

Euskal Herria Burujabe proiektatzen dugunean ez gara Burujabetza bakarraz ari, Burujabetzetaz baizik, hau da, bizitza burujabe bat aurrera eramateko beharrezko diren sektore estrategikoetan lortu beharreko subirautea mailetat baizik: energia, elikadura, zaintza, hezkuntza, telekomunikazioak... Guzti hauetan, herri gisa antolatu, planifikatu, kudeatu eta exekutatzeko beharrezko jakintza, bitarteko, gaitasun eta eskumenak lortzeko lan egitea proposatzen dugu.

Horrenbestez, eta aurretik Hernaniren kasurako azpimarratu dugun bezala "zer" bat baino gehiago "nola" bat da Euskal Herria Burujabe eraikitzeke prozesua: herritarrekin egindako planifikazio demokratikoaren, herri egitasmo ekonomiko zabalen eta instituzio publikoen sostenguaren elkar-ekintzaren bidez eraiki nahi den prozesua, eraiki nahi den herria. Egiteko for-

ma berri bat, denon artean eta inor atzean utzi gabe ibiltzen hastera garamatzen bide-orri bat.

Zergatik ez diseinatu elikadura burujabetzaren bidean sektoreko plan estrategikoa, sustatu sektoreko proiektu estrategikoak eta sortu jarraipena egingo dien mahai sektorial nazionala? Baditugu Errigora eta Laborantza Ganbara bezalako eragile sozioekonomikoak eta baita Udalbiltza bezalako instituzio publikoak den mankomunitate nazionala.

Zergatik ez sustatu telekomunikazio burujabetzaren bidean azpiegitura publiko-komunitarioak? Jada lanean dihardute EHkom operadore publiko-komunitarioak zein telekomunikazio zerbitzuak eskaintzen dituen Izarkom kooperatibak. Honezkero, Hego Euskal Herriko hainbat herrietan barrena zuntz optiko publiko sareak eraikitzen zein landa eremuetako internet konexio duina bermatzeko proiektuak garatzen ari dira.

Energia burujabetzaren bidean pausuak ematen ari dira jada. Iparraldean I-enerrek lanean dihardu udalherri eskalan energia berriztagarria sortzen. Hegoaldean aldiz Goienarren laguntzarekin hainbat dira komunitate energetikoak sortu dituzten herriak. Herritarrek, kooperatiba zein eragile sozio-ekonomikoak eta instituzioak elkarlanean... Zergatik ez Euskal Herriko energia burujabetza planifikatzeko mahai nazional bat?

Zaintza, etxebizitza, moneta, bioaniztasuna... Hainbat sektore eta nahi beste erronka. Euskal Herriko 3 milioi inguru herritarren bizi baldintzak bermatu eta gure herriko bitarteko materialak modu demokratikoan planifikatu eta banatu nahi baditugu badugu zer eginga.

Utopiaren bidean prefiguratu dezagun gaurdanik Euskal Herria. Jarri dezagun martxan Euskal Herria Burujabe bai herriz herri, bai eskualdez eskualde eta bai sektorez sektore. Etorkizuna gaur ere badelako. Ekin lanari!

06.

“HEMEN GAUDELA ETA JARRAITUKO DUGULA ESATEKO MODU BAT IZAN DA OSPAKIZUNA, 75 URTEKO IBILBIDEAK EMAN DIGUN ESPERIENTZIAREKIN”

(Ainitze Blanco, Hernaniko Gizarte Berrikuntzako zuzendaria)

Libe Murua

Iaz 75 urte bete zituen Hernaniko Gizarte Berrikuntzak eta Gipuzkoako Lanbide Heziketako ikastetxe zaharretarikoa izanik, merezi duen ospakizuna eskaini zioten urte osoko egitarau batekin. Egindako lana goraiatzeko eta aurrera begira konpromisoz lanean jarraitzeko ospakizuna izan da, 75 urteko esperientziaren motxila gainean izanda.

1947an Hernaniko Urbietan kalean zegoen zine zaharra hartu eta ikastetxe bilakatzeko hautua egin zuen herriko Karmelo Labaka apaizak. 75 urte igaro dira ordutik eta gaur-gaurkoz, 263 kidek osatzen dute Gizarte Berrikuntza izenez ezaguna den Hernaniko Lanbide Heziketako ikastetxea. Iazko martxoaren 3an eman zitzaion hasiera urteurrenari, ikastetxe atarian egindako prentsaurreko baten bitartez, esker hitzez eta erronka berriez josita. 75. urteurrenaz eta gehiagoz aritu da Aintzane Blanco, Hernaniko Gizarte Berrikuntzako zuzendaria.

Nola ospatu duzue 75. urteurrena?

Modu zabalean ospatu dugu urteurrena, ikasleak, irakasleak eta urte guzti hauetan ikastetxetik pasatako langile eta kide ezberdinak elkartuz. Denetariko jarduerak osatu dute egitaraua. Otsailaren 23an eskolaren atarian egindako prentsaurreko baten bidez adierazi genuen ikastetxearen urteurrena zein hilabete horien bueltan egingo genituen ekintza ezberdinak zeintzuk izango ziren.

Hernaniko Biteri Kultur Etxean egindako argazki erakusketa batekin eman genion hasiera egitarauri, otsailaren 28tik martxoaren 3ra bitarte egon zen ikusgai; festa herrira atera eta zabaltzearen helburuarekin. Izan ere, garai batean EPO izenez ezaguna zen

ikastetxea oso maitatua izan da Hernaniarren artean, eta garai horiek gogora ekarri eta herritarrak memoria ariketa matean murgildu nahi izan genituen.

Martxoaren 3an egun osoko egitaraua ere antolatu genuen, futbol partidak, txaranga, ginkana, bazkaria eta dj-ak izan genituen, besteak beste. Kultura arlotik tiraka, *Tio Teronen Semeak* emanaldia antolatu genuen Atsegindegian. Bestalde, ospakizun instituzionalago bat ere burutu genuen, hezkuntzako sailburua, lanbide heziketako sailburu ordea, Hernaniko udala, lanbide heziketako zuzendariak eta enpresetako ordezkariak bildu eta ikastetxera gonbidatuz. Azkenik, abenduaren 1ean bazkari bat antolatu genuen, gonbidapena luzatuz, modu batera edo bestera, ikastetxearen parte direnei, zein izan direnei.



Urteurreneko prentsaurrekoa Hernaniko Udala, Ikaslan eta Ikastetxearen eskutik.



Hezkuntza arloko arduradun ezberdinak eta Hernaniko Udala ikastetxean.

Zein helburu eduki du urteurrenak? aurreikuspenak bete ditu?

Bai, guztiz. Ikastetxeak ibilbide luzea duela adierazi nahi izan dugu hilabete hauetan. Gizarte Berrikuntza izenez ez gaitu jende askok ezagutzen baina, urte luzeko lana dago hemen. Lanbide Heziketako Ikastetxeen artean gu gara zaharrenetarikoa Gipuzkoa mailan, beraz, gu ere hemen gaudela eta jarraituko dugula esateko modu bat izan da ospakizuna, 75 urteko ibilbideak eman digun esperientziarekin. Bide batez, Instituzioetako arduradunek ikastetxea ezagutu eta bertan egiten dugun lana zein den erakusteko bide bezala ere erabili dugu. Lanbide Heziketako sailburuordetza eta zuzendariak hona ekarriz eta, zer egiten dugun eta nola erakutsiz.

Gizarte Berrikuntza zarete orain baina, herrian EPO izaten jarraitzen duzue oraindik ere, nondik dator hau?

Hernanirentzat eta bertako herritarrentzat EPO izaten jarraitzen dugu; garai batean, ikastetxeak bere ateak ireki eta ospe handia hartu zuenean EPO deitzen baitzen, *Escuela Profesional Obrera*. Hernaniko Urbietak kaleko zine zaharra ordezkatu zuen ikastetxeak 1948an, Don Karmelo Labaka, Hernaniko apaizaren eskutik; hamabost ikasle eta bi irakasleekin. Ikastetxearen izena aldatzen joan da urteetan zehar, hala nola: EPO, Karmelo Labaka Institutu Politeknikoa (ikastetxea publikoa egin zenean), Agustín Iturriaga Institutua (Hernaniko Institutuarekin fusionatu zenean) edota Hernani BHI. Orain, berriz, Gizarte Berrikuntza gara. Urteurrena izen berriari ahotsa emateko eta EPOtik gaur arte egindako lana omentzeko bide bat ere izan da.

Ikastetxeko langileak eta irakasle eta ikasle ohiak urteurrenako bazkarian; abenduak 3an, Hernaniko Akarregi sagardotegian.

Erraz esaten dira 75 urte, zer mantendu du ikastetxeak urte guzti hauetan?


Adierazgarria da guretzat garai bateko ikasle eta langileek ikastetxearekiko duten sentimendua. Hau aipatzeko zerbait dela uste dut, ikastetxean ikasi izanagatik daukaten harrotasuna eta zein ilusioarekin hitz egiten duten beraien garaiez. Partaide izatearen sentimendu bat dago horren atzean, eta hori da, urte guzti hauek eman duten fruitu handienetako bat. Ikastetxe txikia izatetik haratago, familia bat gara eta, beraz, guztiok ezagutzen dugu elkar. Horregatik, sentimendu hori zaintzen eta mantentzen saiatzen gara beti. Ikasle kopuru txikiagoa edukitzeak gauza ezberdinak egitea ahalbideratzen digu, hala nola, ikaslearen beharretara egokitzea eta bakoitzari arreta pertsonalizatua ematea.

Aldaketak ere egon dira, noski. Gehienbat irakasteko metodologia aldaketak eman direla esango nuke, lan egiteko moduan, hain zuzen ere. Kalitatezko heziketa da gure helburua baina, beti ere, ikasle zein irakasleen ongizatea bermatuz. Gizartean egon daitezkeen arazoak zeintzuk diren jakinik, guztion ongizatea lehen lerroan jartzea ezinbestekotzat jotzen dugu.



Sustraiak

1947an erosi zen Hernaniko Urbieta kalean kokatua zegoen zinea. Urtebeteko egokitzen lanen ostean, eta Hernaniko Karmelo Labakaren eskutik, *Escuela Profesional Obrera* (EPO) sortzen da 1948an. Urte gutxira zinearen eraikina txiki gelditzen da eta 1962an eraikin berria irekitzen da, gaur egun Karmelo Labaka kalea izena hartu duen eremuan.




Escuela Profesional Obrera, 1948an.

Mahaiaren bueltan elkartu dira Juan Mari Navarro, Patxi Apezetxea eta Martin Zugasti. Ikastetxeko lehenengo promozioa osatu zuten Juan Marik eta Martinek; Patxi, berriz, ikasle eta, ondoren, zuzendaria ere izan zen. Hastapenetako garaiak ekarri nahi izan dituzte gogora.

Garai haietan ikastetxea ireki izanak herriko gazteen zatitza aukera handiak ekarri zituela azaldu dute mahaiako kideek: "Hernanin ez zegoen lanbide bat ikasteko aukera askorik, akaso batzuk Donostiara joateko aukera zuten, baina, guk, tranbiarentzako dirurik ere ez genuen", dio Martinek. Juan Mari eta Martin 13 urterekin sartu ziren ikastetxera, lehenengo promozioa osatuz. Ikastetxe hau sortzeak lan munduan sartzeko irtenbide izugarria eskaini ziela azaldu dute, bai berriari, bai eta, ostean etorri diren generazioei. Horregatik, esker hitzak besterik ez dituzte sorreran lanean aritu ziren kide guztientzat: "Garai haietako zenbait pertsonen lana eta eskuzabaltasunarengatik izan ez balitz, gure etorkizuna pintxe izatera mugatuta egongo zen, lanean 5,20 pezetaren truke", dio Juan Marik.

Patxi gazteagoa izanik, urte batzuk beranduago heldu zen ikastetxera, Hernanin Batxilergoa martxan jarri zenean, zehazki. Garai hartan, gazte gehienak EPOn



Martin Zugasti, ikastetxeko lehenengo promozioiko ikasleekin lanean.

sartzen zirela azaldu dute, horrela egin ezean prestakuntza kualifikaturik gabe lan mundura sartzea zen zegoen irtenbide bakarra. Gainera, EPOk, ikasketak burutu ondoren inguruko enpresaren batean lan kontratua lortzeko bermea eskaintzen zuen. "Hernaniko zein inguruko garaiko gazteok EPOn sartzen ginen. Gutxi batzuek besterik ez zituzten egiten batxilergoko ikasketak, abokatu edo arkitekto izan nahi zutenak. Lanerako prest zeuden guztiak hona etortzen ziren", azaldu du Patxik. "Guk bagenekien eskola honetan ibiliz gero lana izango genuela; eta hau, garrantzitsua zen, etxean dirua behar baitzen. Askotan ikasketak bukatu baino lehen ere, lanean hasten ginen enpresa eta tailer ezberdinetan. Honengatik ere, etxean ondo ikusten zuten lanbide ikasketa hauek burutzea", jarraitu du.

"Gu hasi ginenean dena zegoen egiteko. Ez da gaur egun bezala, ikastetxera iritsi eta denetarikoa tresneria dagoela ikasleen eskura. Ez genuen ia materialik, guk sortu behar genuen dena. Gure makinaria tornuzil bat eta lima bat ziren eta horrekin burdina moztu eta piezak egiten genituen. Tornuzil bakarrekin egiten genuen kurtso osoa. Pixkanaka baliabide gehiago lortzen joan zen ikastetxea; gogoan dut ekonomikoki egoera hobea lortu genuenean, metro erdiko tornua ekarri zutela", azaldu du Martinek. "Ezerekin hasi ginen baina, ahal genuena sortzen", gaineratu du.

Lehenengo urteetan ikasle guztiak gizonetzkoak ziren, 1960. urteko ikasturte hasieran ikastetxera aurreneko emakumeak sartu ziren arte. Lehenengotariko promozioek metaleko ikasketak besterik ez zituzten jaso, geroago etorri ziren elektrizitatea eta delineaizioa; azken ziklo honetan apuntatzen ziren emakume gehienak. Garai hartako irakasleak ere oso gazteak izaten zirela azaldu du Martinek: "18-20 urte zituzten irakasleak genituen, begira nola aldatu diren gauzak".

Garaiko bizipenak ere gogoan dituzte: "Egunero klase-
ra sartu eta irakasleak gela zapaltzen zuenerako guztiok zutik jartzen ginen, aita gurea errezatzeko gero", kontatu du Juan Marik. "Nire irakaskuntzako ibilbide osoan behin jaso nuen masaileko bat, lehenengo

promozioiko ikaslea izan zeneko batek eman zidan. Orduan irakasleentzat normala zen masailekoak ematea, ez zegoen gaizki ikusia. Aspektu horretan adierazgarriak dira garaiko ohituretatik nola aldatu diren gauza asko eta asko", dio Patxik.

Ikasketak amaitu bezain laster hasi ziren lanean Juan Mari eta Martin; Patxik, berriz, eskolan jarraitu zuen irakasle moduan eta bertan eman zituen 43 urte. Ikasle izandako 4 urteak eta irakasle izandako 43 urteak, "bizitza osoa bat, bertan hasi eta bukatu", azaldu du.

Patxik zuzendaria izateko pausua 1975ean eman zuen. 70eko hamarkada bereziki gatazkatsua izan zela dio: "Garai honetan hil zen Franco, 75ean hain zuzen ere, eta Frankismoa bukatu zen segidan. *Burgosko prozesua* ere eman zen eta honek guztiak eragin zuzena izan zuen ikastetxean, noski. 1975ean zuzendari zenak kargua utzi behar izan zuen eta niri eskaini zidaten zuzendari postua. Garai hartan eskolaren jabea Madrilgo *Asociacion Catolica de Propagandistas* elkar-
tea zen baina, gizartean eman ziren zenbait egoeren ondorioz, ikastetxearen jabetza uzteko erabakia hartu zuten. Momentu horretan mahaiaren bueltan elkartu ginen udaletxea, parrokia, guraso elkar-
tea eta beste zenbait elkar-
te; eta denok ikastetxea mantendu nahi genuen arren, inork ez zuen eskolaren ardura hartu nahi izan. Ikastetxeak jada 400 ikasle inguru zituen eta hori modu batera edo bestera aurrera atera behar zela argi genuen irakasle batzuek. Azkenean kooperatiba bat sortzea adostu genuen irakasle eta zenbait langileren artean, eta guk eraman genuen aurrera 13 urte luzez eskolaren jabetza eta ardura. Kooperatiba horren sorkuntzan eta mantenuan egon nintzen ni", azaldu du Patxik.

Ekonomikoki garai zailak ere pasa zituzten kooperatiba berrian; aurrekontuak lotzeko zailtasunak edota eguberriko paga ordaintzeko arazoak. 1993an Euskal Gobernuak martxan zegoelarik, ikastetxea publiko izatera igaro zen. Garai hartan zenbait ikastola egin ziren publiko eta ordoren, erdi mailako hezkuntzako zentro batzuk. "Gipuzkoan hiru lanbide eskola sartu ginen arlo publikoan, Don Bosko, Zarauzko Pelukeria Eskola

eta gu. Lasaitasun handia hartu genuen, pribatua izatetik publikora igarotzeko pausua oso garrantzitsua izan baitzen, bere alde on eta txarrekin. Kooperatibistok gure etxeak banku-abal gisa jartzera ere iristen ginen, eskola mantentzeko, pentsa. Publiko izateak eskola jarduera eta gure soldatak bermatuta egotea esanahi zuen, eta hori, izugarria izan zen denontzat”, kontatu du Patxik.

“Gaur egun lanbide bat ikasteko aukera askoz gehiago dago, baita kanpora ikastera joateko ere; Donostian bertan ia denetarik aurkitu dezakezu. Baina, kalean gure edadeko jendearekin hitz eginez gero, askok eta askok hemendik pasatakoak direla esango dizute; eskola honek ekarpen handia egin dio eskualdeari, ezer ere ez zegoenean aukera berri bat ireki baitzuen gu guztiontzat”, gaineratu du Martinek.



Ikastetxea lekuz aldatzen da, gaur egungo Karmelo Labaka kalera, 1962an.

IKASTETXEAREN ZENBAIT DATA ESANGURATSU

1948an Karmelo Labakak bere atea irekitzen ditu.

1962an ikastetxea lekuz aldatzen da, egungo Karmelo Labaka kalera.

1963-64 urteetan eraikinaren handitze lanak burutzen dira.

1966an kimika eta elektrizitatea sartzten da zikloen aukeretan (lehendik mekanika eta delineatzaile zikloak egonik).

1974-75 urteetan Euskara sartzten da ikastetxera.

1981ean ikastetxea 21 kidez osatutako kooperatiba bihurtzen da.

1987-88an administrari zikloak gehitzen dira.

1993an ikastetxea arlo publikora igarotzen da.

1994an ikastetxea Eusko Jaurlaritzaren sare publikoan sartu zen, kooperatiba etapari amaiera emanaz. Handik aurrera, Karmelo Labakak Institutu Politeknikoa izena hartu zuen.

1997/98 ikasturtean Karmelo Labaka Institutu Politeknikoa eta Agustin Iturriaga Institutua bateratu egin ziren, Hernani BHI izena hartuz.

2012/13 ikasturtean Urumea, Langile eta Elizatxo ikastetxeetako DBH-ak elkartu ziren Hernani BHI-ra.

2015/16 ikasturtean Lanbide Heziketa banadu egin zen Hernani BHI-tik, Gizarte Berrikuntzako Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua sortuz. Aurrerantzean Lanbide heziketa soilik eskeiniko da ikastetxean.

Eskaintza anitza

Hernaniko Gizarte Berrikuntzak Lanbide Heziketak barnebiltzen dituen etapa guztiak eskaintzen ditu gaur egun eta ziklo bakoitzak bi urteko iraupena du, praktikaldiekin batera: Oinarrizko Lanbide Heziketan mekanika, elektrizitatea eta informatika zikloak, Erdi Mailan mantenu elektromekanikoa gehitzen da, Goi Mailako zikloan mekanika diseinua, elektrizitatea, informatika eta animazio soziokulturala eta turistikoa (Gipuzkoa mailako bakarra) eta Espezializazioan, fabrikazio gehigarriaren zikloa.

“Oso garrantzitsua da Oinarrizko Lanbide Heziketa hasten duen ikasle batek bermatuak edukitzea Erdi Maila, Goi Maila eta Espezializazioa egin ahal izateko aukera. Ikaslearen zainketarako eta bere beharretara egokitzeko ezinbestekoa iruditzen zaigu jarraipena

egiteko aukera eskaintzea. Guretzat ikasle batek eta pa guztiak egitea arrakasta bat da”, azaldu du zuzendariak. Jarraian, ikasleek etapa guztiak osatzeko dituzten zailtasunez hitz egin du: “Oinarrizko ikasketak egiten dituzten ikasleak Lanbide Heziketan trebatzeko erabakiarekin iristen dira ikastetxera. Ikasketa tradizionalen bidean jarraitu ordez, berriro ikasketa ohiturak hartu eta gazte hauek azken etaparaino eramatea izugarria da guretzat; erraza izaten baita ziklo batekin aski izan eta lan mundura salto egitea, hala ere, guk beti animatzen ditugu ikasten jarraitzea”, dio.

Enpresak eta proiektuak

Lanbide Heziketako ikastetxeak eta enpresa mundua etengabeko hartu emanean daude, azken batean, funtsa ikaslea lanera joateko prestatzea baita. “Edozein ziklo



Gizarte Berrikuntza, Hernaniko Karmelo Labaka kalean.

bukatuta lan mundura salto egiteko titulua besapean dutela ateratzen dira ikasleak”, dio Blancok. Horregatik, momenturo lan munduarekin harremanetan egoitea ezinbestekoa da beraientzat: “Enpresetara joaten gara, bisitak egiten dizkiegu eta beraien beharrianak zeintzuk diren aztertzen ditugu”, gehitu du zuzendariak.

Gehienbat Hernani inguruko sare industrialeko enpresa txiki eta ertainekin lan egiten da harremana, eta gehienbat mekanizazio, mantenu elektromekaniko eta elektrizitate arloko enpresekin. Hala ere, beste familia garrantzitsuak ere badituzte ikastetxean eta ondorioz, eskualdeaz gaindiko enpresekin ere aritzen dira. Hauen artean, animazio soziokulturala eta turistikoa den zikloa eta aurten lehen promozioa izan duen Fabrikazio Gehigarriko espezializazio kurtsoa (goi mailako zikloaren ondoren egin daitekeen urtebeteko Lanbide Heziketako masterra).

Ikastetxearen eta enpresen arteko harremana nolakoa den azaldu dute Aimar Agirresarobek eta Josune Uzku-dunek, beraiek baitira harreman honetan zubi lanak egiteaz arduratzen direnak. “Enpresarekin harreman estua izatea beharrezkoa da Heziketa zikloetan irakatsi nahi ditugun edukiak eguneratuak egon eta enpresen beharrik asetuta egon daitezten. Bi norabideko harremana da. Guk, enpresen beharrak aztertu eta ikastetxera gerturatzen ditugu eta behin harremana sortuta, Euskadiko Lanbide Heziketan egiten ditugun berrikuntzen edota ikastetxeko formazio ikastaroen inguruko informazioa eskaintzeko aukera ematen digu”, azaldu du Agirresarobek. “Nolabait, merkatuan gertatzen diren aldaketen berri izatea garrantzitsua da, ikasleen formakuntza prozesuan, berrikuntza horien zertzelada batzuk behintzat izan ditzagun”, gaineratu du Uzku-dunek.

Enpresa txikiz jositako eskualdean kokatzen da ikastetxea eta elkar lan egin nahi duten enpresak lortzea hain erreza ez dela azaldu dute. Ahoz ahoko lana handia egin behar izaten dute: “Profesionalen behar handia dago baina eguneroko erritmoan sartuta dauden enpresekin harreman sendoak sortzea ez da erraza. Inguruko industria sarean, enpresa txiki asko ditugu, langile gutxikoak eta askotan, eguneroko erritmotik atera eta gure berri izateko aukera handirik ez dute

izaten. Gehienetan ez da iristen eskaintzen ditugun zerbitzu guztien informazioa eta, ahoz ahoko lanean aritzen gara askotan”, dio Agirresarobek.

Murgilduta dauden proiektuen artean aipagarrienetako bat TKgune-ena. Tkguneak zerbitzu bat eskaintzen den proiektu bat bezala definitu du Agirresarobek. Zerbitzu honen helburua, enpresekin lankidetzan aritzeko berrikuntza aplikatuko proiektuak garatzean datza. Askotan enpresa txikiek ez dituzte ideia eta hobekuntzak martxan jartzeko aurrekontu edo baliabide nahikorik, zerbitzu hau, beraz, asmo horiek gauzatzen laguntzera bideratuta dago. Bestalde, zerbitzu honen helburuetako bat, prozesuan ikasitakoa, ikastetxeko beste irakasle zein ikasleetara zabaltzea ere badela dio Agirresarobek.

Bestelako proiektuetan ere murgildu da ikastetxea eta lan enkargu hauek ziklo ezberdinetako ikasleak elkarlanean burutzea lehenesten dute, ikasleek beraien formakuntza praktikan jar dezaten. “Behin Hernaniko Udalarentzat herrian bizikletak aparkatzeko egokitutako guneak egin genituen. Eskaera horretan Goi Mailako zikloko ikasleek diseinu ezberdinak egin zituzten; animazioko ikasleek herri mailako ikerketa bat egin zuten eta udalari aurkeztu zioten, leku proposena eta modelo egokiena zein zen erabakitzeko. Oinarrizko zikloko ikasleek erabakiak hartu ostean, ekoizpen lanetan hasi ziren eta Erdi Mailako zikloko ikasleek, behin dena itxita, herrian kokatu zituzten aparkalekuak. Horrela, batzuek bestearen lana beharrezkoa dutela ikusten dute”, azaldu du Blancok.

Proiektu solidarioak ere izan dituzte azkenaldian eskuartearen: “Inguruan ditugun erakundeekin kontaktuan jartzen gara, beraien beharrak ezagutu eta eskaini diezaiekeguna adosteko. Hernaniko Karabeleko enpresarekin esaterako, baratzeko gailu ezberdinak sortu genituen. Hernaniko errugbiko taldearekin ere izan gara harremanetan eta entrenatzeko behar zituzten mankuernak eta zelaietako ateak egin genituen. Herriko Zahar Egoitzarako baratza terapeutikoak sortu genituen. Hernaniko Wukro elkartearekin ere zenbait lan egin ditugu, hala nola, zaharkitutako materiala berreskuratu eta hauek berri, bigarren bizitza bat emanez”, kontatu du zuzendariak.



Lanbide Heziketako ikasleak bizikletak aparkatzeko gailu berriaren aurkezpenean, ikastetxe atarian.



Lanbide Heziketako ikasleak bizikleta zahar bat konpontzen, bigarren bizitza bat emateko.

Internalizazioa

Atzerrian dagoenaz ikasteko modu bat da internalizazio proiektuetan parte hartzea. Horretarako bide ere ematen du Hernaniko Lanbide Heziketak. Ikasleek aukera dute kanpora ikastera joateko programa ezberdinen bidez, esaterako, Erasmus programarekin ikasketen zati bat atzerrian burutu daiteke. “Gaur egun ezinbestekoa da beste herrialdeekin sare bat osatzea. Urtero ikasleek kanpora joateko aukera dute praktikak egitera, Erasmus bekaren bitartez. Irakasleek ere internalizazio honetan parte hartzeko aukera dute, formakuntza ezberdinak jasotzeko. Iaz 12 ikasle eta 10 irakasle joan ziren Europako txoko ezberdinetara, hala nola, Italia, Eslovenia, Portugal, Praga, Polonia, Italia edota Suedia bezalako helmugak ditugu aukeren artean”, azaldu du Blancok.

Proiektu hauetan parte hartzeko prozesuaz mintzatu da zuzendaria: “Urtero galdeketa bat egiten zaie ikasleei, jakiteko ea zenbaterik duten atzerrian praktikak egiteko asmoa. Ondoren, beka iristen dira, batzuetan denentzako haina, baina ez beti. Aukeraketa bat egin behar bada, ez dagoelako beka nahikorik denentzat, irakasleek aukeratzen dute zein ikasle den egokiena. Normalean notaren edota jarreraren arabera izaten da hautaketa hau. Beti ziklo guztietako ikasleak aukeratzen saiatzen gara, ikasketa modalitate guztietako ikasleek izan dezaten aukera”.

Gizarte Berrikuntzaren erronkak

205 ikaslek, 52 irakaslek, idazkari batek eta 2 atezainek eta 3 garbitzailek osatzen dute gaur egun Hernaniko Gizarte Berrikuntza. Bertako baliabideei dagokionez, ikastetxea etengabeko aldaketetan murgilduta dagoela eta hau, merkaturan ematen ari den ezegonkortasun egoerarekin lotua dagoela azaldu du zuzendariak: “Etengabeko moldaketak egiten dira ikastetxean urte batetik bestera, ohituta gaude ezegonkortasun egoera batean bizitzera eta, beraz, lana egitera ere bai”.

Merkatura egokitzeko prozesu honek, ikastetxean isla nabarmena duela adierazi du Blancok, bi lan nagusi gehitzen baitzaizkie: teknologia berriak txertatzea

eta gizartearen tendentziak aztertzea. Berriki sartu diren hitz berriak zeintzuk diren aipatu ditu jarraian: “Digitalizazioa, adimen artifiziala, zibersegurtasuna, fabrikazio gehigarria, jasangarritasuna, ekintzailtza, berdintasuna, Tkaguneak edota nazioartekotza, besteak beste”. Lanbide Heziketatik ere jarraibideak ematen dira tendentzia berri hauek ikastetxeetan txertatu ahal izateko. Adibidez, digitalizazioa lantzeko gela berri bat sortu dutela kontatu du Blancok, *Aula de Alto Rendimiento con Tecnología Digital* deiturikoa. “Murgiltze-gela eta gela interaktiboa sortzeko abisua ere iritsi zaigu eta horretan gabiltza orain”, kontatu du.


Hala ere, zuzendariak gogora ekarri du teknologia hori egon arren, ez dutela galtzen beraientzat garrantzitsuena den ikuspegia, gizakia, hain zuzen ere. “Gizarte berrikuntza gara eta ezin ditugu pertsonak bigarren planoan jarri”, gaineratu du.

Beraien egitekoa garbi dute eta horrela definitu du zuzendariak: “Gure egitekoa gaitasun tekniko, sozial eta zeharkakoak lantzea da, ikasleen formakuntza, ongizatea eta gizarteratzea bultzatzeko; gizarte hobetuko bat lortze aldera”. Eta hori lortzeko bidea zein den ere argi azaldu du: “Gizartea hobetuko duen proiektu berritzaileak lantzen dituen erreferentziatzeko zentroa izan nahi dugu; hezkuntza integrala eskainiz eta lantaldean eta giro onean lan eginez”.

Ikastetxeak duen erronka nagusiaz ere hitz egin du Blancok, eta honetan konpromisoz lan egiteko ardua hartu du: “Lanbide heziketako ikastetxe bezala gizarterari erantzun bat emateko erronka dugu. Horretarako, eraginkorrak izan behar dugu eta hori lortzeko ongi prestatutako jendea behar da ezinbestean. Gizartearen errealitatea da digitalizazioa eta enpresek geroz eta langile prestatuagoak behar dituztela arlo honetan, beraz, profil berri hauek sortzeko erronka dugu”.

MIKEL GONZALEZ, 2023KO EUSKOSKILLSDEKO IRABAZLEA

Mikel Gozanlez izan zen iazko EuskoSkills 2023ko lehiaketako txapelduna, elektrizitateko modalitatean. 21 urteko gasteiztarrek txapela irabazi eta SpainSkillseko lehiaketan dauka burua jadanik. Bitartean, elektrizitateko ikasketen azken urtea amaitzen dabil Hernaniko Lanbide Heziketako ikastetxean. Lehiaketaz eta gehiagoz hitz egin du.



Mikel Gonzalez 2023ko EuskoSkillseko lehiaketan.

Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasketak egiten hasi eta Erdi Mailako ziklora salto egin zenuen; orain, elektrizitateko Goiko Mailako ikasketak bukatzen zabitza Hernaniko Gizarte Berrikuntzan, nolatan?

Gasteizeko Jesus Obrero ikastetxean egin nituen lehenengo lau urteak, Oinarrizko eta Erdi Mailako ikasketak. Hauek amaitu ostean lana eskaini zidaten baina, nik ikasten jarraitzeko gogoia nuen. Lagun batenkin batera gure ikasketekin zerikusia zuten graduak begiratzen jarri eta Hernaniko Lanbide Heziketan apuntatzeko aukera ikusi genuen. Ez genuen bitan pentsatu. Azkar batean Hernanira etorri ginen, berme handirik izan gabe, baina ilusio handiz. Segituan moldatu ginen hemengo bizitzara.

Goi Mailako ikasketen azken urtea bukatzen ari zara, bigarren urte hau era Dual batean eginez; zer da zehazki ikasketa Dualak egitea?

Dualeko ikasketak egiten ari naiz bigarren urte honetan, hau da, ikasketak eta lana uztartzen dituen modalitate bat egiten nabil. Horrela, astean behin Donostiako Ibarlek enpresara joaten naiz lanera eta gainontzeko egunetan ikastetxera etortzen naiz. Praktikak egitea bezala da, baliozkotu egiten baitira, baina, ordu gehiagoz egiten da lan eta kobratu egiten da. Hala ere, ez da erraza Dualeko ikasketak aurrera eramatea, ez du edonork aukera hau hautatzen; lana eta ikasketak, biak uztartzea, sakrifizio handia baita.

Gasteizeko ikastetxean KNXren kurso bat ere egiten nabil orain, automatismora bideratutako formakuntza baten antzekoa dena. Beraz, noizean behin Gasteizera ere joaten naiz klaseak jasotzera.

2023an EuskoSkills lehiaketa irabazi zenuen. Hernaniko Ikastetxeak bi aldiz hartu du parte lehiaketa honetan, 2019an eta 2024an, bietan, elektrizitateko modalitatean eta bietan garaile izan dira. Zertan datza lehiaketa hau?

lazko maiatzaren 9tik 11ra bitarte ospatu zen EuskoSkills 2023 lehiaketa, Irungo Ficoban. Lehiaketa hau Lanbide Heziketako ikasleei zuzendutako txapelketa da. Bertan, espezializazio bakoitzak bere eremua eta lehiakideak ditu. Ni elektrizitateko modalitatean nengoen beste hamaika lehiakideekin batera. Kide bakoitzak bere txokoa du errealizatorako, elkarrengandik metro batzuetara bananduta. Modalitate bakoitzak helburu bat dauka, nire modalitatean, etxebizitza oso baten instalazio elektrikoa egitea zen helburua, lehiak irauten zuen hiru egunetan.

Baina, zure lana aurkezteko txanda iritsi zenean, argia joan zen.

Bai. Azken egunean, premioaren banaketa baina ordu batzuk lehenago, instalazioaren neurketa probak egin ziren. Nire txanda iritsi zenean, ordea, argirik ez zegoela konturatu nintzen, eta horixe erantzun nien epaimahaikideei, ez zegoela argirik. Frogatzeko esan zidaten jarraian eta etengailuari eman nion. Ez zen argirik piztu, noski. Jarraian ahozko azterketa egin zidaten galdera ezberdinen bidez. Bukatu orduko, elektrizitatea bueltan zen eta proba praktikoa egiten hasi behar nintzenean, amaitutzat eman zuten nire txanda. Orduan, epaileek nik galderak erantzuteko erakutsi nuen gaitasunekin txundituta zeudela esan zuten. Guztiok aho zabalik gelditu ginen, baita nire irakasleak ere.

Lehiaketa irabazi eta urrezko domina eman zidaten. Apirilean Espainiako lehiaketara noa, Spainskills



2024. Ez dakigu zehazki zer egin beharko dugun baina, ezaugarri batzuk baditugu, beraz, hau prestatzen gabiltza jadanik.

Zertarako aukera eman dizu txapelketak?

Norberaren abileziak aurkezteko aukera moduan hartu dut nik lehiaketa. Ikasketa handia da, presiopean egiten duzu lan lehiaketak irauten duen denboran eta nire burua egoera horretara eta limite horietara eraman nahi nuen. Bestalde, gainerako ikasleentzat baliogarria dela iruditzen zait, datozen urteetan aurkezttera bultzatzeko motibazioa ere izan daitekeelako.

Laster bukatuko dituzu Goi Mailako ikasketak, zer asmo duzu ondoren?

Holandara noa ekainean, lanera. Urte hauetan esperientzia asko irabazi dut eta kanpora joateko ordua iritsi zaidala sentitzen dut. Nire ametsa, urte batzuez lana egin ostean, enpresa bat sortzea da. Horretarako garrantzitsua iruditzen zait kontaktu sare handi bat edukitzea, harremanak egitea profesional ezberdinekin eta, finean, geldirik ez egotea. Urte hauetan lanean, eta baita, lehiaketari esker, kontaktu asko egin ditut horregatik, kanpoan lan egiteko esperientzia bizi ondoren, enpresa sortzearen ideia dago nire buruan.

07.

HERNANIN ARTOAK ETA ERROTAGINTZAK IZAN ZUTEN ERAGINA

Olatz Arca Mendiluze

Artoaren sarrerak eragina izan zuen Euskal Herrian. Eragin hori ez zen bat-batekoa izan, hainbat mendeetan luzatu zen, hots, XIV – XVIII / XIX mendeak izan ziren horretarako bide. Amerikako Indietan jatorria eta Gipuzkoatik sarrera eduki zuen ale horrek eta, batez ere, momentura arte Euskal Herrian zegoen nekazaritzan, abeltzaintzan, merkataritzan, eta abarrean izan zuen eragina.

Nekazaritzaren egoera artoa iritsi baino lehen, tokian toki, oso bestelakoa izan zen eta, gainera, artoak erritmo desberdinean eragin zuen Euskal Herrian. Hala ere, lurraldearen garapena bere osotasunean ulertu behar da, hainbat arlotan haien artean harremanak izan baitzituzten. Horrela, ba, artoa, lehenik, kostaldekoek bereganatu zuten, horien artean, Gipuzkoak. Lurralde horrek ez zuen nekazaritza oso garatua eta herritik herrira, gainera, desberdintasunak zeuden. Hala ere, artoak emango zizkien abantailak zirela eta, zeukaten nekazaritza moldatzeko aukera izan zuten. Gipuzkoako herrien artean Hernanik aipu berezi bat jaso zuen Aita Larramendiren “Corografía” obra eza-gunean:

“El maíz es más útil en Guipuzcoa; trájose desde las Indias la primera vez á esta provincia, y lo trajo Gonzalo Percaistegui, natural de Hernani, y se comunicó después á otras provicias”

(Larramendi, 1882, 58).

Larramendiren arabera, **artoa Gipuzkoan sartu zuena Gonzalo de Percaiztegui hernaniarra** izan zen.

Hau aztertzea konplexua izan daiteke, izan ere, Udal Artxiboko dokumentu asko galdu dira historian zehar. Hernani nahiko herri estrategikoa zen bertatik errege bidea igarotzen zelako eta Donostiarekin ere nahikoa harremana bazuen. Gainera, Nafarroarekin mugan dagoen herria dela kontuan hartuta, inguruko herriekin harremana ere izan zuen, hala nola Arano eta Goizueta. Merkataritzarako beraz, lotura nahiko zabala izango zuen besteak beste. Donostiarekiko harreman honen inguruan, Larramendik ere hainbat aipamen egiten dizkigu “Corografía”n:

“... [El Urumea] Es río navegable más de dos leguas, desde el puerto de Santa Catalina hasta algo más arriba de Ereñozu, y en alas o gabarras chatas y anchas suben la vena para las herrerías del Urumea y bajan el hierro labrado a San Sebastián... Baja también de tierra adentro el maderamen necesario para los bajales al puerto de Hernani y de aquí hasta más abajo de Astigarraga, y de allí por tierra hasta la Herrería de Pasaje...”

(Etxeberria, 2020, 22).



(HUA / ARGAZKIAK / HER00321)

Horiek kontuan hartuta, Aro Berrian Hernanitik igarotzen den Urumea ibaiak garrantzia izan zuen, nabigarria baitzen eta horrek harremanak estuagoak izatea ahalbideratu zuen. Izan ere, garai horretako lurreko bideak ez ziren oso erosoak. Ibaia bide errazagoa eta, era berean, merkeagoa izan zen. Modu horretan, Urumea inguruan sortu ziren errotek, burdinolek eta erreka-portuek zeresana izan zuten Hernaniko ekonomian. Ibaiak dinamismo handia eman zion eta, horren bidez, Hernanin produzitu zen burdina, sagardoa, uzta, Nafarroatik ekarritako gaiak eta beste asko erraztasunez Donostian eta Pasaian merkaturatzea ahalbideratu zuen. Hala ere, Urumean modu kroniko batean egon ziren uholdeek ere eragin negatiboa izan zuten eraikin horietan (Soria, 1982, 80-85, 98).

Hernaniko nekazaritza artoa orokortu arte (“... en esta dicha Villa se hacía muy poca cosecha...”).

Hernaniko nekazaritza artoa orokortu arte ez zen nekazaritza tradizionalera mugatzen, hots, garrantzi handiagoa zuten bestelako laborantzek, sagastienak besteak beste. Hala ere, Hernaniko nekazaritza nola-koa zen aztertu nahi badugu, Hernaniko Udal Artxibo-

ko dokumentuetara jo eta XVI. mendeko ordenantzak hartu behar dugu kontuan, jada herrian ekoizten ziren hainbat laborantzen berri jakiteko. Horien arabera, garia, artatxikia, azak, porruak, tipulak, baratxuriak, arbiak, babak, txiribiak, mahastiak, sagarrondoak, gartzainondoak, udareondoak eta intxaurreondoak ekoizten ziren besteak beste.

1580 urtetik aurrera, Hernanin landa eremuak handitzen joan ziren. 1589 urtean, jadanik ereiten hasi ziren lur horien berri ematen dute ordenantzek, non esaten duten hiru urteren buruan lur eremuak zabaldu egin zirela eta garia eta artatxikia ereiteko erabiliak izaten ari zirela. Bestalde, lur eremuak mugatzeko orduan, “*pies de manzano*” izeneko neurria erabiltzen zuten hernaniarrek; horrek, sagastiek eremuan izan zuten garrantziaren berri ematen du (Soria, 1982, 211-212, 217).

Baserriek eta burdinolek ere, haien lur pribatuetan laborantza lanak egin zituzten eta lur horiei gehitzen zitzaizkien Hernaniko harresiaren kanpoan zeudenak. Lorategi eta baratze urbano moduan funtzionatzen zuten eta normalean modu iraunkor batean ezartzen ziren errentan. Horietan barazkiak eta frutak landa-

tzen ziren, horien artean: tipula, porrua, baratxuria, aza eta, neurri txikiago batean, letxuga. Fruta-arbolei dagokienez, aniztasuna ere nahiko handia zen (Narbarte, 2020, 361-362).

Badakigu oinarritzakoak ziren aleekin eta herrian zeuden abere buruekin elikatzen ziren arren, kasu askotan, ez zela nahikoa izan. Modu honetan, produktu asko inportatzekoak izan ziren. Gai horien artean, okelak, urdaia, bakailoa, olioia eta ardoa aipatzen dira dokumentuetan. Produktu bakoitza toki batek ekarri zuten; bakailoa, Ternuatik, eta ondoren Pasaiaiko portutik Hernanira; olioia, Aragoitik; ardoa, ordea, Nafarroatik. Gariarekin ere hau berresten da, izan ere, Hernanin produzitzen zen garia ez zen nahikoa herri guztia asetzeko eta Frantziatik ekarri behar zuten; bertatik ekartzea, Nafarroa, Aragoi edo Valentziatik ekartzea baino merkeagoa zen barne

aduanak zirela eta. Gainera, XVI. mendeko azken laurdenetik XVII. mendera arte, izurriteak, gudak, gosea, klima txarra etab. Hernaniko herriari zailagoa egin zitzaion garia lortzea. Modu horretan, Donostian bakarrik ez, inguruko herrietan ere garia lortzen saiatu ziren (Soria, 1982, 152-171, 252; Murugarren, 1970, 72-73).

Abeltzaintzari erreparatzen badiogu, ez dago hainbeste informazio ordenantzetara jo ezean. 1518 urteko ordenantzei erreparatzen badiogu, aditzera ematen dute zeuden abere motak nahiko ugariak izan zirela, lehenago Gipuzkoa osoan zeudenen antzerakoak. Aipatzen direnen artean: ardiak, ahariak, bildotsak, behiak, txerriak eta abar zeuden. Egiten diren horiekiko aipamenetan, kontuan hartzekoa da, denak nekazaritzarekin harremanak izaten zirela eta, batez ere, sagastiekin, horien babesa bilatzen zen:



(HUA / ARGAZKIAK / HER00361)

“... por cada caveça de ganado menor, es a saber: de carneros, ovejas y corderos, que entren en qualquier mançanal ageno syn liçençia de su dueño en el año que oviere mançana, del día de San Jhoan Bautista del mes de junio fasta tanto que del dicho mançanal sea cogida, el dueño del dicho ganado pague...”

“De las penas del ganado menor que entrare en senbradía agena...”

(Ayerbe, 2019, 386-390).

Aurki daitezkeen aipamen hoi bitartez, Hernaniko nekazaritza, artoa sartu baino lehen, batik bat sagastigintzarekin lotzen zela berresten digu. XVIII. mendera arte, babesten saiatzen ziren eta herritarrei debekatu egiten zitzaizen sagarra eta sagardoa kanpotik ekartzea. Adibide bat jartzearen, 1652 urtean Juanes de Andiazabal eta beste batzuen kontrako salaketa ezarri zen sagarrak eta sagardoa kanpotik ekartzeagatik. Gainera, 1542 urteko ordenantzetan sagastian sartzeko mugak, sagardoa saltzeko arauak eta abar ezarri ziren. Modu horretan, bertako sagardoa eta sagarrak babestea garrantzitsua izan zela pentsa daiteke (Aragón, 2015, 100; Ayerbe, 2019, 324-338; Murugarren, 1970, 72).

Errotetan sakonduz, gehienak hasiera batean burdinola moduan azaltzen ziren. Ondoren, ura aprobeixatu ahal izateko, bestelako helburuekin erabiltzen hasi ziren: irin-errota eta, zenbait kasutan, sagardoa lortzeko ere. Hala ere, horietako batzuk hasieratik irin-errota izan ziren: Pagoaga-errota, Beko-errota, Osiñagako-errota, Eziago-errota, Karabel-errota (ondoren sagarra ere), Franko-errota (gaur egun ez dago arrastorik) eta Errotaberri (ondoren, 1611 urtetik aurrera, Urnietaren parte izango zen, urte horretan jaso baitzuen Hernanik honen azken errenta). Irin-errota izateaz gain, beste funtzio batzuk eduki zituzten artean, Pikoaga-errota, Ereñozu-errota eta Epele-errota egon ziren. Hernaniko biztanleek, antza denez, eskubidea izan zuten hainbat errotetara libreki joateko haien aleak ehotzeko, horien artean Eziago-errota eta Errotaberri (Aguirre, 1988, 558-566, 778; García eta Moraza, 2020, 9-10).

Artoaren osteko loratzea

“El maíz es más útil en Guipuzcoa; trájose desde las Indias la primera vez á esta provincia, y lo trajo Gonzalo Percaistegui, natural de Hernani, y se comunicó después á otras provicias”

(Larramendi, 1882, 58).

Euskal Herrian artoa osagai garrantzitsua izan zen nekazaritzaren eraldaketarako. Aita Larramendik “Corografía” lanean, eta ondoren beste hainbat idazleak ere, hala nola Madozek, Gorosabelek, Murugarrenek eta abarrek diote **Gonzalo de Percaiztegui hernaniarra** artoa Gipuzkoara itsasoz ekarri zuela. Hori egun ezin daiteke egiazat jo, ez baitago datu hori ziurtatzen duen iturririk. Hala ere, argi dagoena da artoa kostatik sartu zen momentutik sekulako aldaketak ekarri zituela Euskal Herrira.

Hernaniko dokumentuetan artoa 1634 urtean aipatzen da lehen aldiz, eta horrekin batera garia eta artaxikia erein zituzten. Momentu horretan, artoa garia baino zertxobait garestiagoa zela adierazten dute datuek. 1638 urterako, ordea, labore arrunt moduan aurkezten zen jada; beraz, historiografian aipatzen den kostaldeko zonaldeetan gertatu zen joera orokorrekin bat egin zuen Hernanik.

Aurreko mendeekin alderatuta, antzeko elikagaiak zeuden, horien artean, sagastiak nagusitzen ziren oraindik. 1678 urtean Ayerdiren etxean bildu ziren zinegotzien artean, 30 izan ziren, sagardo salmentaren inguruan aritu ziren eta, horien artean, alkatea bera. Guztira 63 kupel elkartu zituzten. Ordenantzetan aipatzen da lehenengo herriko sagardoa saldu beharra zegoela eta debekatuta zegoela sagarrak edo sagardoak kanpotik ekartzea. Hala ere, dokumentazioari erreparatu gero, salbuespenak ere bazeuden, uzta txarra zegoenean adibidez. Horren adibide da 1660 urtean Ereñozuko burdinolak eta Sarrudeguiko baserriak uzta txarraren berri eman zutela; izan ere, sagardoa kanpotik ekartzeko baimena eskatu eta eman zitzaizen (Carrión, 1996, 69-72; Soria, 1982, 215-216; Sorondo, 1998, 120).

Abeltzaintzari dagokionez, aurreko mendeetan gertatzen den moduan, ezer gutxi dakigu. 1731 urtearen kasuan, berriro nekazaritza gailentzen zitzaiola ikusten da eta lurrak, batez ere, ereiteko erabili zirela. Aitzitik, nekazaritza eta abeltzaintzaren inguruko informazio aberasgarria lortzeko nahiko jauzi handia egin beharra dago, XIX. mendera zehazki. Kasu horretan, 1829 urtean, Hernanin zegoen nekazaritza eta abeltzaintzaren inguruko informazioa ematen digu dokumentu batek: Hernaniko lurretan...

“... Se siembra y se cogen las cosechas siguientes: trigo, maíz, abas y abichuelas. Además para el ganado se siembran y cogen alolba, nabo, alfalfa. También se recoge manzana, con la que se hace sidra. Todo se consigue a fuerza de trabajar ocupando muchos brazos, pues con el ganado bacuno muy pocas cosas se hace mas que conducir los abonos y las cosechas... Hay ganado bacuno bastante para los trabajos del campo y para surtir la provision de carne. No es país donde se puedan criar caballos y mulas”

(HUA / HISTORIKOA // B- 4- IV-1/2).

Beraz, ikusten dugu Hernanin egon ziren abereak nekazaritzara bideratu zirela, baita haragiaren hornikuntzara ere. Bestalde, 1857 urtean, Hernaniko Udalak galdetegi bat gauzatu zuen nekazaritza eta abeltzaintzaren inguruko informazioa eskuratzeko. Hernanin zeuden abereen artean gehienak ardiak ziren, 970, hain zuzen ere. Bigarrenik behiak, 740 buru zeuden eta honen atzetik txerriak, 450. Bestalde, kantitate txikiagoetan zaldiak, idiak eta mandoak ere aipatzen dira. Horien artean, tira-abereak eta okelarako erabili ziren abereak zehazten dira besteak beste.

Nekazaritzari dagokionez, XIX. mende erditik aurrera ikus daiteke jadanik artoaren ekoizpena gariarenari nagusitu zitzaiola. Bestalde, artasoroak galsoroak baino handiagoak ziren arren, lurraren prezioa berdina izan zen. Garia garestiagoa izan zen eta, denboran zehar, 1851tik 1867ra, bilakaera gorakorra izan zen ekoizpenarekin batera. Geroz eta behar gehiago egon zen aleekiko eta, horregatik, artoaren abantailak probesteko, gehiago erein zuten herrian bertan eta gainera, ongariak erabiliko zituzten produkzioa areagotzen saiatzeko.



(HUA / ARGAZKIAK / HER00159)

Errotei dagokienez, XVII. mendean zenbait burdinola irin-erota bihurtu ziren eta errota berriak sortzeko ekimenak ere egon ziren, horien artean Carapote. XVII. mendean eraiki zen. Errotaz gain, ereiteko eremua ere bazuen; sagastia eta erreka-portua izan zituen. Pentsatzen da merkataritzarekin loturik egon zela, eta Hernaniko beste portuetan bezala, sagardoa, egurra, harlandua eta burdina egon zirela salgaien artean. Horiek XVII. mendean zehar ez ziren alde batera utzi, guda eta uholdeengatik ez bazen, izan ere, etengabeko berrikuntzak gauzatu zituzten horietatik. Horren adibide izango lirakeke Carapote eta Franko-erota, zeinetan XVII. mende osoan zehar zapuzten zirenak berritzen jardun zuten. Udalek errotei esker diru-sarrera nahiko interesgarriak lortzen zituzten, hori dela eta errotak ondo mantentzearen interesa nahiko handia zen. Gainera, geldialdi egoera gertatzen zenean ekonomikoki konpentsatzen zitzaion errota-ko jabeari (Castro eta Sanz, 2016, 51-54; Castro eta García, 2017, 16-20; Soria, 1982, 220-224).

Artoaren sarrera baino lehen, beste ekintza batzuekin alderatuta, esan daiteke aleen nekazaritza tradizionalak ez zuela indar handia eduki. Horren argudio da 1613 urtean oraindik Hernaniren inguruan esaten zirenak, zeinak ez ziren nekazaritzaren oso aldekoak:

“... y antes se había satisfecho diciendo que en esta dicha Villa se hacía muy poca cosecha de trigo y ninguno de cebada porque la gente de ella se ocupaba en herrerías y en la mar, y también las tierras que había estaban ocupadas con manzanas y montes por esta razón se había hecho tan poca cosecha...”.

Beraz, pentsa daiteke mende horietan zehar basoak, ibaiak eta horren inguruan burdinolek garrantzi handiagoa zutela Hernaniko ekonomian; eta, zer esanik ez, espezializazio moduan ulertu daitekeen heinean, sagastigintzak eta sagardoak. Hernanin zegoen nekazaritza ez zen tradizionaltzat jotzen dena, hots, mediterranearen ereduak; bertakoek nahiago izan zuten sagastia lehenetsi eta falta zitzaizkienak erosi (Soria, 1984, 211).

Artoaren sarreraren ostean, ordea, egoera aldatu egin zen, nekazaritzak eta abeltzaintzak indar gehiago hartu zuten. Horren froga XIX. mendean nekazaritza eta abeltzaintzaren inguruko datu gorakorrek dira. Horrela deskribatzen da Hernani XIX. mendean:

“... En su jurisdicción se hallan 4 molinos y 3 ferrerías, nombradas Fagollaga, Ereñotzu y Picoaga, a distantes de una a 2 horas de camino. El suelo es delicioso y fértil: produce trigo, maíz y legumbres: la manzana en años buenos es cosecha considerable, y con ella se hace la sidra, bebida ordinaria de los naturales. De castaña, nuez, guinda, pera, melocotón y uva de parra se coge medianamente; y no faltan otras especies de frutas en especial naranjas y limones...”.

(De Govantes, 1802,362).

BIBLIOGRAFÍA

- Aguirre Sorondo, A. (1988). *Tratado de molinología: los molinos en Guipúzcoa*. José Miguel de Barandiaran Fundazioa. Donostia.
- Ayerbe Iríbar, M.R. (2019). *Derecho municipal guipuzcoano: Ordenanzas, reglamentos y autos de buen gobierno (1310-1950)*. Vol 3. Errenteria - Irún. 3. Euskal Herriko testu juridikoak. Gipuzkoa.
- Aragón Ruano, Á. (2015). *El sector agrario guipuzcoano en la encrucijada de los siglos XVI y XVII. Lurralde: investigación y espacio*, 38 zk., 89-116.
- Castro, J. eta Sanz-Azkue, I. (2016). *El molino de Carapote (I)*. *Hernaniko Udala*. 50-59.
- Castro, J. eta García, I. (2017). *El puerto fluvial de Carapote, un puerto privado en Hernani*. *Hernaniko Udala*. 16-21.
- De Govantes, A.C. (1802). *Diccionario geográfico-histórico de España: Comprende el reyno de Navarra, Señorío de Vizcaya, y provincias de Álava y Guipúzcoa*. Sección I. La Real Academia de La Historia.
- De Larramendi, Manuel (1882). *Corografía o Descripción general de la Muy Noble y Muy Leal provincia de Guipúzcoa*. Eskuragarri: <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/24622> (azken kontsulta: 2024/05/09).
- Etxeberria, J.J. (2020). *Hernani-Goizueta oinezko bide zaharra: Urumea bailara pausuz pausu*. *Hernani Urtekaria*. 26. zk. Hernaniko Udala. 18-25.
- García Dalmau, M. eta Moraza Barea, A. (2020). *Urumea bailarako antzinako industria-ondarea, azterketa historikoa*. Hernaniko Udala. *Hernani Urtekaria*. 26. zk. 8-17.
- Murugarren, L. (1970). *Hernani (su historia e instituciones)*. Gráficas Izarra - Peña y Goñi. Donostia.
- Narbarte Hernandez, J. (2020). "Baratze bat nahi deizüt egin...": *Baratze eta lorategi urbanoak Euskal Herriko Hiribildu eta bastidetan (XIV. - XIX. mendeak): Tokiko produktu freskoak ekoiztea antzinako erregimenean*. 43. zk. 345-372.
- Soria, M.L. (1982). *Los hombres y los bienes de la Villa de Hernani entre 1585 y 1650: memoria de licenciatura*. Ediciones de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.
- Sorondo Aguirre, A (1998). *Hernani eta hernaniarrak (mendeetako zertzeladak)*. Kutxa Gizarte eta Kultur Fundazioa.

ARTXIBOKO ITURRIAK

Hernaniko Udal Artxiboa, Funtza Historikoa / Argazki funtza.

HUA / HISTORIKOA // A-9-I-1/6. Documentos relativos a introducciones de sidras de fuera, autorizadas por la escasez de cosecha propia, y a prohibiciones de extraer sidra y manzana de la jurisdicción por el mismo motivo. 1651 - 1681.

HUA / HISTORIKOA // B-4-IV-1/2. Estados referentes a la producción agrícola y a condiciones de higiene y salubridad de caseríos de la jurisdicción. 1827 - 1903

HUA / HISTORIKOA // C-5-III-1/2. Traslado autorizado de un contrato de merced y donación hechas por la Villa de Hernani a favor de García de Ramírez de Enciola... del solar de la ferrería mazonera situada en el paraje llamado de Araynibar, lindero de los términos y montes del Concejo... con facultad de que alrededor de dicha ferrería pueda plantar manzanales, viñas y demás... 1401

HUA / HISTORIKOA // C-5-III-1/8. Documentos referentes a obras, condiciones de arrendamiento etc. del Molino [Franco]. 1546 - 1727

